

# Jakin170

urtarrila-otsaila  
2009



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen  
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*

.....



KULTURA SAILA

*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*



ZENBAKI HONETAN

**7**

LIBURUAK

**11** Euskal liburugintza 2007  
JOAN MARI TORREALDAI

**GAI NAGUSIA** Martin Ugaldereen idazlanak

**53** Martin Ugaldereen lan idatzien katalogoa  
JAKIN

GAIAK

**109** Zazpi gauza jakin beharrekoak  
Lazarragari buruz  
PRUDEN GARTZIA

© **Jakin**

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

**Jakin**

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jakingunea.com  
www.jakingunea.com

---

2009ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	50 €	—
Ale arrunta	8,30 €	10,50 €
EUROPAN		
Harpidetza	65 €	—
Ale arrunta	11 €	13,50 €
EUROPATIK KANPO		
Harpidetza	75 €	—
Ale arrunta	15 €	17,50 €

## S U M M A R Y



### **BASQUE BIBLIOGRAPHY 2007**

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language during 2007. In this year, 2,135 books were published in the Basque language, 317 more than in 2006. Most of these publications are school books (32%), followed by children's and young people's literature (25,5%), books on human and social sciences (18,5%) and literature for adults (12,5%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. **JOAN MARI TORREALDAI**

### **THE WRITINGS OF MARTIN UGALDE**

The transmission of historical memory of the Basque language, culture and history has always been one of the concerns of the Jakin Group. One has to situate several of its working projects within this context. Among these is the project involving the compilation, publication and analysis of vital leading players in Basque culture. Specifically, Jakin has just finished its work on the writings of Martin Ugalde. We offer the complete catalogue of the written work by Martin Ugalde in this section: both the published works (books, book chapters, leaflets and newspaper articles) and non-published works (original manuscripts and texts intended for the preparation of radio and TV programmes). **JAKIN**

## **SEVEN THINGS ONE NEED TO KNOW ABOUT LAZARRAGA**

Pruden Gartzia, the Director of the Azkue library, provides us with the fundamental features of the profile of Lazarraga, a writer from the second half of the 16<sup>th</sup> century from Alava, of noble descent, who wrote purely for pleasure both in the Basque language and in Spanish. According to the author, the recent discovery of the manuscript by Lazarraga in the Basque language suggests the need to reconsider the stereotyped image of Basque literature and to formulate new questions in the light of new details. **PRUDEN GARTZIA**

## ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 170. zenbakia da eta 2009. urteko lehenengoa.

Zenbaki honetako edukiak hiru ataletan daude sailkatuta. Alde batetik, *Liburuak* sailean, Joan Mari Torrealdai *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren ildo beretik, 2007. urtean euskaraz argitaratutako liburuen azterketa aurkezten digu. Beste aldetik, *Gai nagusia* sailean, Martin Ugaldereen obra bildu eta digitalizatzeko burutu berri duen egitasmoaren emaitza bat eskaintzen du Jakinek: Martin Ugaldereen idazlan guztien katalogoa (lan argitaratuak zein argitaragabeak). *Gaiak* sailean, azkenik, Pruden Gartziaik Lazarraga idazle arabarrari buruz idatzitako artikulu bat dator.

*Liburuak* sailean, bada, 2007an euskaraz argitaratutako liburuei buruzko Joan Mari Torrealdairen azterketa dator. Izan ere, Torrealdai urtero egiten duen lana ez da mugatzen liburuen zerrenda hutsa osatzera ([www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com) webgunean dago 2007ko liburuen zerrenda hori). Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du.

2007ko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, liburu produkzioaren zifren eta iturrien fidagarritasunaren auzia; bigarrenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen izaera eta aniztasuna, eta argitaletxe emankorrenen aipamena; hirugarrenik, argitalpenaren zenbakien inguruan, argitaratutako tituluaren zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearren, 2007an 2.135 liburu argitaratu ziren, 2006an baino 317 gehiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakas-kuntza arlokoak izan ziren: 685 (produkzio osoaren %32); ondoren, haur

eta gazte literaturako liburuak (547, %25,5), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (394, %18,5) eta helduen literaturakoak (264, %12,5).

*Gai nagusia* sailean, esan bezala, Martin Ugaldere idazlan guztien katalogoa dator. Izan ere, memoria historikoaren transmisioa hasiera-hasieratik egon da Jakin taldearen kezken artean, eta testuinguru horretan kokatuko lirakeke Jakinek egindako hainbat lan: horien artean, euskal kulturaren funtsezkoak izan diren hainbat pertsonaiaren obra bildu, digitalizatu eta aztertze egitasmoak. Hain zuzen, amaitu berri-berria du Martin Ugaldere buruzkoa. Horrenbestez, sail honetan, Martin Ugaldere lan idatzien katalogo osoa eskaintzen dugu: idazlan argitaratuak (liburu osoak, liburu zatiak, liburuxkak eta artikulak) zein argitaragabeak (eskuizkribu originalak eta irrati-telebista saioak prestatzeko idatzitako testuak). Guztira, 1.930 idazlan zerrendatzen dira katalogo honetan.

*Gaiak* sailak, azkenik, Lazarragari buruzko Pruden Gartziazen artikulua dakar. Bertan, Joan Perez Lazarragako idazleari buruz ideia orokor bat izateko jakin beharrekoak diren oinarri-oinarrizko kontuak azaltzen dizkigu: XVI. mendearen bigarren erdiko idazle arabarra, nobleziako kidea, gustu hutsagatik eta euskaraz zein gaztelaniaz idatzi zuena. Gartziazen aburuz, halaber, Lazarragaren euskarazko eskuizkribuaren aurkikundeak hauxe ere ekarri du: euskal literaturaz guztiok dugun irudi estereotipatua birplanteatu beharra, galdera berriak egin beharra datu berrien argitan. ¶



LIBURUAK

# Euskal liburugintza 2007

**11** JOAN MARI TORREALDAI

# Euskal liburugintza 2007

JOAN MARI TORREALDAI

Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziaduna

30 urtetik gora badihardugu zeregin honetan, hots, urtero aurreko urteko liburuak oro bildu, fitxatu eta aztertu. Urteroko lan hau koroatzeko modua ere diseinatua eduki badaukagu, Liburuaren Behatokia alegia, baina arazo bat edo beste tarteko ezin izan diogu heldu, eta epe laburrean horretan murgiltzeko modurik ere ez dut ikusten, zoritxarrez. Hobe-tzeko grina galdu gabe, daramagun bideari eutsiko diogu oraingoz. Sei urte luze badira, 2003ko otsailaren 20 madarikatuaz geroztik, behin-behinekotasunean bizi garena, zaharkituz doan egoera berri horretara ohitu ez bagara ere.

Hel diezaiogun hogeita hamaikagarren aldiz liburu azterketari.

## Baina zenbat titulu argitaratu dira 2007an?

Oso konpletoa edo exhaustiboa izatea ezertan ez da erraza, eta bibliografia lanetan ezina guztiz. Liburu guzti-guztiak bildu dituela nekez esan dezake inork. Ez nik eta ez beste inork. Nik ez behinik behin. Besterik da, ordea, erdiz-

ka biltzea. Lanak ditu sinesteak euskal liburu produkzioaren inguruan zein kopuru azaltzen diren. Negargarriak izan ohi dira Durangoko Azokaren bueltan agertzen diren zifrak, eta are okerrago, esango nuke, apirileko 23ko Liburuaren Egurenaren inguruan zabaltzen direnak, inprobisatuagoak edo. Edozein zifra bota, eta lasai gelditu ohi dira iritzi emaileak zein kazetariak. Urtea joan eta urtea etorri, beti berdin.

Nago, ordea, mezulariak ez ote duen errurik, inertziarena (eta hainbatetan profesionaltasun eskasarena) besterik. Iturburuan dago egon nahas-mahasa. Datu emaile batetik bestera ez pentsa, gero, hiruzpalau tituluren alde dagoenik! Ehunkako alde dago zenbaitetan iturburu nagusien artean. Ulergaitza.

Iturria / Urtea	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007
INE								1.102
ISBN espainiar agentzia	1.425	1.326	1.342	1.487	1.681	1.534	1.425	1.231
Precisa / Conecta	1.589	1.621	1.588	1.576	1.584	2.094	1.710	2.009
Joan Mari Torrealdai	1.519	1.488	1.665	1.945	1.851	2.016	1.818	2.135

Badago alderik: 1.102 txikiena, 2.135 altuena. Ehun mila tituluko produkzioa balitz ez litzateke horren larria tartea, baina eskandalagarria iruditzen zait gure kasuan. Inortxok ere ez du konpontzeko ahaleginik egiten, gainera.

Okerrena zera da, gero hortik elikatzen garena informatiboki guztiok. Ez kazetariak bakarrik. Kulturaren Euskal Behatokia bera ere bai.

Non dagoke gakoa?

Datuak biltzeko moduan edo metodologian, oker ez bana-go. Bakoitzak ditu bere iturriak eta bere metodologia. Emaitzak ikusita, bistan da ez iturriak oro eta ez metodologia guztiok ez dutela fidagarritasun bera.

- *INE eta ISBN*

INEk (Instituto Nacional de Estadística) Lege Gordailua du iturri. Jakina denez, liburu guztiok, argitara eman aurretik, gordailuko zenbakia lortu behar dute.

ISBNko agentziak duen iturria ere ezaguna da, argitale-  
txeen eskutik jasotzen baitu fitxa bibliografikoa, nortasun  
zenbakia lortze aldera.

Nik neuk kontabilizatu ditudan 2.135 horiek, guzti-guztiek  
daukate lege-gordailua eta guzti-guztiek, baita ere, ISBN  
zenbakia. Eta lege-gordailuaren arabera 2007koak dira.

Zer gertatzen da orduan halako alde handiak gertatzeko?

INERen kasuan ez dakit non dagokeen hutsa, baina hutsa  
egon badago, non ez badakit ere. Ez dut uste iturburuan da-  
goenik, hau da, editorearengan. Editoreek berek ezpada in-  
primategiek egin ohi dute tramitazioa. Hortik geroko infor-  
mazioaren ibilbidea ez dut ezagutzen. Ematen du bidean gal-  
tzen direla informazio horietako asko. Irudi luke, alderatzeak  
balio badu, urrutiko iturri batetik hiritzar batera kanal edo  
hodi bidez ekarri ohi duten urarekin gertatzen dena, bidean  
galtzen dela erdia. Beste hainbeste hemen, antza denez.

Eta ez dakit gauza beretsua ez ote den gertatzen ISBNren  
kasuan. Editoreak dira hemen informatzaileak. Bistan da  
horiek liburuari zenbakia jartzen diotela, eta pentsatzekoa  
da horren berri Agentziari ematen diotela. Dena den, he-  
men ere non desagertzen edo desbideratzen da zorioneko  
informazio hori? Auskalo.

Tituluen desfase horri esplikazio bat eman nahita, Conec-  
tak dio (aurtengo azterketan) berrinprimaketen erruz izan  
daitekeela hori. Hau da, editoreek berrinprimatuen berri ez  
diotela ematen Agentziari. Baliteke. Baina niri ez zaizkit, ha-  
la ere, zifrak ateratzen. ISBNk berak aipatzen ditu berrinpri-  
maketak eta berredizioak, guztira 243 titulu. Nik bi kontzep-  
tu horietan (berrinprimaketa, berrargitaraketa) 624 bildu di-  
tut. ISBNren eta nire kopuruaren arteko aldea 381 titulukoa da  
berriz kaleratzen direnetan. Orokorrean 904koa da, ordea!

Bi estatistika iturri nagusi horien fidagarritasuna auzitan  
jar daitekeelakoan nago. Aspaldi salatu dut. Gogoan dut be-  
re garaian katalanek ere gogorki salatu zutela ISBN. Ez da-  
kit, egia esan, fidagarritasun maila eskas hori beste guztie-  
kin ere badenentz.

- *Conecta*

Bi horietaz gainera badugu beste informazio iturri bat: lehen Precisa, orain Conecta. Ikerketa etxea da hori, eta estatu mailan oso zabaldua dago. Gurean Euskadiko Editoreen Elkartearentzat lan egiten du. Aurrekoengandik guztiz bestelakoa du informazio bilketa, ohikoa aztertzaileengan. Bide nagusia galdetegia du, galdetegi egituratua, editore profesionalei zuzendua. Jasotako informazioaren gabeziak bigarren mailako iturriekin osatzen dituzte, telefonoz, ISBN datu-basea kontsultatuz, eta abar.

Conecta gehiago hurbiltzen da egiazko zifretara, garai batean baino gehiago orain, baina ez du informazioaren egiazkotasuna bermatzen. Bestek esandakotik bizi da, erantzunetan fidatuz. Eta ikertu 1.781 tituluri dagokion unibertsoa ikertu du 2007an esaterako, eta ez unibertso osoa.

Honen eta haien mugak agerian uzten saiatu banaiz, ez da gustuz. Ariketa horretan jardun dut ez inoren aurka, baizik eta gabeziak esplikatuz ahal izateko.

- *Lan bibliografikoan oinarrituz*

Nire zifren defentsan esan dezaket irakurleak berak frogatu dezakeen zerbait: titulua bere fitxa eta guzti ematen dut, datu guztiekin. 2.135 horiek, zertan esanik ez da, ISBNren jabebedunak dira. 2.135 horiez gainera fitxatu ditugu titulu gehiago ere, dezente gehiago. Baina kontaduriaz kanpo utzi ditugu, beste nazioetako bibliografiek alderaketak egitearren.

Nire lana, aurrenekoa eta nagusia, lan bibliografikoa da. Katalogoa osatu gabe ez naiz pasatzen azterketara. Azterketa oso da inportantea, baina datu errealean gain eraikia denean, unibertsoa ondo definitu eta zehaztu eta gero. Sasikoa bada oinarria, nekez izango da fidagarria emaitza.

Lan bibliografikoa ahalik eta zehatzena izanik ere, ezin daiteke bat ehuneko ehun fidagarri izatera iritsi. Hori ez. Nahiz eta titulu guztiak fitxa batez hornituak dauden, guz-

ti-guztien fidagarritasun maila ez da berbera nire neure datu basean. Zergatik? Informazio-iturri desberdinez baliatu naizelako.

Nire metodologian iturri nagusia argialetxea da, %60tik gora. Bi modutara jaso ohi dut argialetxeen informazio hori: liburuak materialki aztertuz gehiena, eta fitxa bibliografiko osoak eskuratuz ere bai.

Horren ondoan badut beste bide bat, fidagarria hau ere: liburutegiak, bereziki Gipuzkoako Aldundiko Koldo Mitxelena, Donostiako Udal Liburutegia eta Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala: %20 bat jasotzen dut horrela. Internetez gainera, ISBNko datu baseaz ere baliatzen naiz, noski. Aurten bertan 300 bat tituluren berri datu base horri esker izan dut. Zein diren? Ezezagun bat edo beste, eta bidali nien eskariari erantzunik eman nahi ez dioten argitaldari batzuk, egoitza sozial nagusia Euskal Herritik kanpo daukatenak gehienbat, baina bertoko bat edo beste ere bai. ISBNko informazioa bildu ondoren, fitxa bibliografikoak argialetxe bakoitzari berea bidali diogu zuzenean, konfirmazio eske. Kontrasterako ere erabili izan dugu ISBNko datu basea.

Ez dakit sakondu, baina luzatu bai behintzat egin naiz titulu kopuruaren inguruan. Merezi duelakoan, hala ere. Noiz argituko ote dira kontu horiek?

Nolanahi ere, beste gai bati (hau bai gai oparoa!) heldu nahi nion, edizio elektronikoari eta liburu elektronikoari. Argitu nahi nuen ez direla gauza bera bata eta bestea, eta gai horien inguruan munduan zehar egiten diren gogoeta eta azterketei errepasso txiki bat egin nahi nien. Egiteko asmotan segitzen dut. Hurrengo batean.

## Jardun editoriala

Sailtxo honetan ikusi nahi duguna zera da, ekoizlea bere ezaugarrietan. Zer ekoizten den, eta nola, jakin aurretik, zein den ekoizle bera jakin nahi dugu, handia, txikia, bertoko edo kanpoko, profesionala ala amateurra...

## 284 argitaratzaile

Bai. Argitaratzaile diogu, eta ez argitaletxe, izan ere, bi gauza ezberdin baitira. Bigarrena, eman dezagun, profesionala da, egitura bat baduena, espresuki liburuak egiteko dagoena. Editoriala esaten duguna. Lehena, aldiz, era askotakoa izan daiteke: zerbitzu editoriala duen erakundea; autore editorea, talde, elkarte edo fundazioa; eta abar. Horiek eragile edo agente editorialak dira, ez propioki argitaletxeak. Eta horiek zein haiek, modu orohartzailean hitz eginda, argitaratzaileak dira.

Argitaratzaile horiek guztiak batean hartuta, 2007ko produktioan, 284 dira. Conectak, bere aldetik, guztira 140 dira.

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	149
2-4	76
5-9	20
10-19	20
20-29	5
30-39	3
40-49	1
50-59	1
60-69	2
70-79	2
80-89	0
90-99	2
100-149	1
150etik gora	2

Asko dira, ugari. Gehiegi diren ala ez besteren batek ebatz dezala. Urtero esan ohi dudana seinالاتu gabe ezin utzi, ordea. Asko izatea ez dela nahitaez on, ez dela aniztasunaren seinale. Ekoizpenaren egitura aztertuta kontrara baizik: ahuldadea da ugaritasun horren azpian ezkututzen dena. Ondoko laukiak islatzen du ongi. Ekoizleen erdia eta gehiago dira (%52,3) titulu bat bakarra atera dutenak. Hori nahikoa ez balitz, hona ahuldadearen beste datua: 10 titulu baino gutxiago kaleratu dutenak %86 dira. Izugarria. Urtean 10 titulu

lu edo gehiago atera dutenak %16 bakarrik dira. Baina kasu! horien artean ere bi azpimultzo daude: erdiek 10-20 titulu artean atera dute, eta beste erdiek hortik gora. Zer aberastasun da hori? Oreka balego multzo horrek erditik gorakoa beharko luke. Egoera saneatzeko ez du muntarik ekoizleen kopurua handitzeak, baizik eta argitaletxeak indartzeak. Bestela esan, batez ere urteko 20 titulutik gorakoak ugaltzea litzateke soluzioa. Sektorea da indartu behar dena, ez sektoretik kanpokoak ugaltu.

### Argitaletxe indartsuenak

Indarra edo tamaina neurtzeko nik ez dut negozio maila neurgailutzat hartu, azterketa ekonomikoetan ohikoa den moduan, baizik eta titulu kopurua. Horren arabera alderatzen ditut batzuk eta besteak, aurrez jakinda, hori bai, indartsuena ere ez dela egiazki indartsu. Gure handienaren titulu kopuruaren tamainan dozenaka dira inguruko kulturetan. Ez da komeni ikuspegi hori ahaztea, egiazko tamaina, alegia.

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Ibaizabal-Edelvives	161	123	284	13,3
Elkar	70	180	250	11,7
Anaya	54	52	106	5,0
Elkar/ Ikastolen Elkartea	12	78	90	4,2
Erein	41	37	78	3,7
Aizkorri-Everest	64	10	74	3,5
Ttarttalo	42	23	65	3,-
Zubia-Santillana	59	5	64	3,-
SM	48	3	51	2,4
Giltza-Edebé	17	24	41	1,9
<i>Guztira</i>	<i>568</i>	<i>535</i>	<i>1.103</i>	<i>51,7</i>

Urtero legez, aurreko lauki horretan lehenengo hamarrak aukeratu ditugu. Lehen begiratuan nabarmentzen da hamar argitaletxeok bitan banatzen direla, bost eta bost: bost, etxe nagusia Euskal Herritik kanpo dutenak; eta beste bostak, al-diz, bertokoak.



Hamarron artean ekoizpen osoaren erdia pasatxo osatzen dute: %51,7. Aurreko urtean baino lau puntu gorago aurreten. Produkzio horretan pisu handia du berrargitalpenak, %48,5 zehazki, ia erdia. Baldin eta datu hori esanguratsua bada, are eta gehiago da hurrengoa: urteko ekoizpen osoan berrargitalpenen %85,7 aipaturiko hamar horien emaitza da. Nobedadeetan, aldiz, hamarron pisua arinagoa da askoz: %37,6. Gainerako guztia, 1.032 titulu, 274 argitaratzaileen artean ekoitzi da, eta titulu horietako askok ez dute bigarren bizialdirik ezagutuko: sortu diren formatuan hilko dira, berrargitalpenik gabe. Hori ere ahuldadearen froga da.

## Argitaratzaile motak

Aurreko sailtxoan handi eta txiki bereiztu ditugun bezala, modu askoz gehiagotan ere bana daitezke ekoizleak. Izaeraz bereiztea izan ohi da ohikoena, izaeraz eta jardun-moldez. Euskal edizioan inportantea da, baita ere, jatorriaren araberrako ikuspegia. Hori dela eta, hemen bien konbinaketa bat egingo dut, izaera eta jatorria gurutzatu edo uztartu. Hauek dira bereiz tratatzen ditudan argitaratzaileak:

- Bertoko argitaletxea: hots, Euskal Herrian sortua, izaera pribatukoa, jardun-moldez argitaldari.
- Argitaratzaile publikoa: hots, Administrazio publikokoak maila guztietan, udaletatik gora, eta Administrazioaren baitako bestelako erakundeak.
- Elkarte, talde eta beste: hots, izaeraz argitaletxe ez direnak eta ezta ere bokazioz. Bertokoak, hori bai.
- «Kanpokoak»: alegia, kanpoan sortu edo etxe nagusia kanpoan dutenak dira hauek. Kanpoko hori beti ere komatxoan artean jarri ohi dut, batzuen sentiberatasuna ez mintzeko eta besteen gaizki ulertuak ekiditeko.
- Irakaskuntzakoak: alegia, izaera desberdinekoak izanik ere bere jardun-moldea irakaskuntzaren esparruan lan-tzen dutenak. Eragile ez editorialak dira, nahiz eta askotan baduten zerbitzu editoriala.

- Koedizioa: alegia, argitaratzaile bat baino gehiagoren artean egin ohi den ekoizpena.

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Ekoizleak</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	46	1.035	48,5
Argitaratzaile publikoa	60	260	12, -
Elkarte, talde, fundazio...	105	188	9, -
«Kanpoko»	40	443	20,5
Irakaskuntzako	16	179	8,5
Besterik	18	30	1,5
Koedizioa	24	148	

- *Bertoko argitaletxe pribatua*

Hemen kokatu ditugun argitaletxeak %16 dira eta ekoizpenaren %48,5 suposatzen dute. Pentsa daiteke, pentsa daitekeenez, hemen kokaturikoak denak handiak eta komertzialak direla. Kontraesana ematen badu ere, ahulak ere bertan sartu ditugu, argitaletxe izan badirelako nahiz eta noizbehinka bakarrik argitaratu, eta beste batzuk produkzio gutxiak izan.

Ekoizpen osoaren erditik hurbil dabilen multzo honek berrargitalpenaren %40 berak egiten du, produkzio osoan %29 denean berrargitalpenaren indarra.

Gaien egituran, multzo honetan nagusi agertzen dena haur eta gazteentzako liburua da (%38,5), ondoren irakaskuntzako materiala (%23) (beti ere kontuan izanda Elkar eta Ikastolen Elkartek elkarrekin atera dutena irakaskuntzako sailean kokatu dugula); eta hirugarren eta laugarren tokietan datoz hurrenez hurren helduen literatura (%20) eta giza edo gizarte zientziak (%9,5).

- *Argitaratzaile publikoa*

Sail honetan %20 kokatu ditugu eta ekoizpenaren %12ko emaitza izan dute.

Hor zehar beste kopuru batzuk irakurtzen dira. Esaterako, Conectak aukeratu duen unibertsoan %12 suposatzen du edizio publikoak, alegia, 27 agente eta bere produkzio zifra-

ren %7,5 edo 153 titulu. Nire unibertsoa beste bat da non-bait: 57 eragilek 260 titulu ekoitzi dituzte.

Irakurri dut, baita ere, edizio publikoak %18 suposatzen duela.

Administrazioa bera eta bere eratorrien emaitzak zenbatu ditut hemen, baina ez irakaskuntzakoak, horiek beste sail batean doazelako nire ustez egokiago. Ekoizle nagusia, urtea joan eta urtea etorri, Eusko Jaurlaritza da, %47rekin aurten; Gipuzkoako Foru Aldundia dator bigarren, hori ere tradizionalki, %16rekin; hurrena, Nafarroako Gobernua %8rekin. Azken horiek baino gehiago osatzen du beste multzo batek: 30 udalen artean %20,5 egiten dute.

Ekoizle horiek bokazio sozialeko liburua kaleratzen dute gehien, Administrazioaren jardunbideari hertsiki lotuz gainera. Giza eta gizarte alorreko zientzietan kokatzen da berorien produkzioaren %63. Oso urruti dator bigarrena (%13), eta bitxia dirudi zientzia eta teknikako liburua izatea.

Jakin badakigu edizio mota honek zirkulazio eskasa izaten duela askotan, eta ez dela irakurle arruntari begira egina eta, ondorioz, bigarren bizialdirik apenas ezagutzen duela. Hainbat editorek, hala ere, edizio instituzionalaren konpetentzia desleiala salatzen du etengabe; desleiala edizio pribatuari lurra kentzen diolako eta preziotan azpitik dabilelako.

- *Elkarte, talde eta gisa berekoak*

Ekoizleen hirutik bat multzo honetan kokatzen dira (%33) eta ekoizpenaren 9 ekoitzi dute. Esan gabe doa indar gutxi-ko produktoreak direla. Garbi agertzen da ahuldadea datu gutxi hauekin: %68k titulu bakarra plazaratu dute; edota beste hau: 5 titulutik behera atera dutenak %92,5 dira.

Badira indar handiagokoak, hala nola, Kutzak, edo Eusko Ikaskuntza, Labayru eta beste.

Jarduera askotarikoak kokatu ditut hemen, euskara, kultura, artelangintza, aisia jardueretan dabiltzanak, esaterako.

Hauen produkzioa, nahiz eta txikia izan, zabala da bere interesetan, gizarte zientzia, irakaskuntza eta literaturan be-

reziki. Merkatu urriko eta bizialdi bakarrekoak dira liburu horiek ere.

- «*Kanpoko*»

Multzo honetan denetarik dago, esan nahi baita, argitaldari profesionalak daudela eta bestelakoak ere bai, talde, elkarte, fundazio eta beste. Gehienak eta indartsuenak, hala ere, argialetxe profesionalak dira.

Sail honetakoak ez dira asko kopuruz, baina bai proportzionalki indartsu. Ekoizleen %13 dira eta ekoizpenaren %20,5 egin dute.

Indar hori nabarmendu egiten da gainera elkarri loturiko bi sailtxotan metatzen direlako titulu gehien-gehienak. Alegia, irakaskuntzan eta haur eta gazteentzako liburugintzan kontzentratzen da kanpokoen produkzioaren %94. Gainerako alor guztietan banatzekoak dira beste 30 tituluak.

Ekoizle hauek badute, bestalde, beste ezaugarri pare bat: berrargitalpenetan bere bertoko parekoen oso atzetik dabiltzala da bata; eta bestea, itzulpenaren pisua gainerakoetan baino askoz ere handiago dela. Itzulpen hori, gainera, maiz xamar gorde edo mozorrotu egiten denez, jatorrizko hizkuntza ezkutatu, egiaz eta benetan aitortzen dena baino garaiagoa da, izan.

- *Irakaskuntzakoak*

Ekoizleak ez dira ugari (%5,5) eta produkzioa %8,5.

Irakaskuntzako erakundeak dira denak ez esatearren gehienak. Irakaskuntzan dira profesionalak, ez editorialgintzan, baina berauetako askok departamentu edo zerbitzu editorialak dituzte.

Produkzioaren erdia Elkar argialetxearekin Ikastolen Elkartek eman du argitara. Beste erdia gehienbat unibertsitateen artean banatu behar da: EHUK %20, UEUK %7, Deustuko Unibertsitateak %5,5, eta abar.

Edizio mota hau, zoritxarrez, lehen edizioan hiltzen da, salbu eta irakaskuntzako liburu ez unibertsitarioa (%43,5).

Bidezkoa denez, irakaskuntzan kokatzen dira gai gehienak (%58), eta hurrena giza eta gizarte gaietan (%21) edo zientziaren alorrean (%10).

- *Koedizioa*

Argitaratzaile mota desberdinon artean elkarlanak badu garrantzirik. Hasteko, produktu jakin bat non kokatu ez da erraza. Non kokatu behar dira, kasurako, Elkarrek eta Ikastolen Elkarteak elkarrekin atera ohi dituzten ikasmateriak? Bertoko argitaletxe profesionaletan? Irakaskuntzakoe-tan? Hori bateko. Eta besteko, garai batetik hona aldatu egin da koedizioaren filosofia edo jardun-moldea, eta agian biak. Euskal eskolaren hasiera haietan kanpokoekin egin ohi zen koedizioa, hemengo hutsunea betetze aldera. Bertoko taldeak indartu zirenean eta kanpokoak bertokotu zirenean, bide hori bere horretan gelditu zen, irteera gabe.

Egungo edizioan jardun-molde hori liburu suntsikorretan soilki gauzatzen da, Tarttalok adibidez.

Gaur egungo koedizioa aniztu eta aberastu egin da asko, eta argitaletxe mota ezberdinak zeharkatzen ditu: argitaletxe profesionalak, erakundeak, elkarteak, egunkariak, irakaskuntza taldeak, udalak. Konbinaketa ugari dira posible, sektorearen barruan zein sektoretik kanpo, bi argitaletxeren artean, argitaletxea elkartearekin, erakunde publikoa argitaletxe profesionalarekin, eta gehiago. 2007ko ekoizpenean 24 eragileren konbinaketaz 148 titulu gauzatu dira; horien artean nagusi izan dira 12 enpresa eta 8 elkarte.

## Eskaintza editoriala

Ekoizleengandik produktura jaisten gara orain. Produktura baino gehiago produkziara. Produktuaren beraren ezaugarri tematikoetan geroago jardungo dugu, hurrengo kapituluan.


Ekoizpena formalki eta materialki aztertuko dugu ondoko orrialdeetan. Aztergai bakoitza denboran kokatuta emango

dugu. Horrela, urteko balioa hiru erreferentzien argitan alde-ratu ahal izango da: aurreko urtea (2006), mende berria (2000-2006) eta aldi luzeagoaren argitan ere bai (1976-2005). Zergatik hori? Urteko balioa bere horretan bakarrik, isolatuta, testuinguru kronologiko gabe, interpretagaitza da, baloraezina. Geure egoera ulertzeko koordinatuak bezala dira erreferentzia horiek.

Bestalde, aztergai bera hiru modutara begiratuko dugu: balio absolutu gisa, erreferentziazko urte baten argitan eta, hirugarrenik, urtetik urterako dinamikan.

## 2.135 titulu

Zifra horixe da nik ontzat eman dudana. Titulu gehiago izan ditut esku artean, eta batzuk baztertu egin ditut eta beste hainbat Jakinen webgunean ([www.jakingunea.com](http://www.jakingunea.com)) agertzen den zerrendan sartu ditut, irakurleak horien berri ere izan dezan. Kontabilizatu, ordea, ISBNdunak bakarrik egin ditut, arestian azaldutako arrazoiengatik. Hortaz, 2.135 horiek den-denek dute karnet zenbakiaren parekoa den informazio identifikagarri hori: ISBN.




Iaz, 200 titulu galdu zirela-eta, ea alarma argi gorria piztu ote zen galdetzen nuen. Banioen orduan, eta gaur ere bai, urte bateko gorabehera horiek zer diren benetan jakiteko

denbora gehiago behar dela, perspektiba luzeagoa. Aurten-go ikuspegia guztiz bestelakoa da, adibidez. Oraingoari ere zuhurtzia bera zor zaio.

Lehenengo eta behin grafikoan bistara jotzen duena aurten-go igoeraren handia da, 317 titulu berri gehiago. Hazkunde horretan berrargitalpenak baino esku hartze handiagoa izan dute nobedadeek (213 titulu berri), eta horien barruan euskaraz sortu izan direnak, ez itzulitakoak (119 titulu). Baina hori, zehaztasun handiagoz, aurrerago aztertuko dugu.


### Tituluen eboluzio-lerroa

Eboluzio-lerro honek bilakaera azpimarratzen du. Horretarako 2000. urteko balioak 100 balio du, eta horren erreferentzian azaltzen da eboluzioa. Garbi dakusagunez, 2000. urtearekiko 40,6 puntu gorago dago gaur ekoizpenaren kopurua, eta iazkoa baino ia 21 puntu goitik.




### Tituluen eboluzioaren indizea

Urtetik urtera gertatzen diren gorak eta beherak azaltzen ditu grafiko mota honek. Hiru urte beltz izan dira mende berrian. 2006an azkenekoa, handiena, baina txiki utzi du aurten-go igoerak.



### Nobedadeak eta berrargitalpenak

Ekoizpen osoaren barruan nobedadeak bezala berrargitalpenak hartzen duen lekua argitzen du grafikoak. Bertatik begiratuta, lerroaren posizioa aztertuta, ikus daiteke, esaterako, zenbait urtetan berrargitalpenak nola konpentsatu duen nobedadeen jaitsiera, edota aurten bezala hazkunde globala nola zor zaion gehiago nobedadeari berrargitalpenari baino.



Grafikotik laukira jaitsiz, eta ikuspegi luzeagoa hartuta, urtetan zehar nobedade eta berrargitalpenen erlazioa nola gauzatu den ikusteak merezi du.



	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Nobedadeak	75	72,8	71,5	71
Berrargitalpenak	25	27,2	28,5	29

Berrargitalpenaren esku hartzea bizkortu egin da urteak pasatu ahala, %25etik %29ra.


Erlazio bera, XXI. mendeari dagokionez, ikusten da hurrengo laukian.

Urtea	Nobedadea	Berrargitalpena
2000	70,4	29,6
2001	76,1	23,9
2002	72,2	27,8
2003	72,1	27,9
2004	75,6	24,4
2005	71,7	28,3
2006	71,5	28,5
2007	71,-	29,-
<i>Batez beste</i>	72,5	27,5

Joera orokorra berrargitalpenaren aldekoa dela esan badaiteke ere, ez da agian nahikoa oraindik. Ez behintzat Frantzia batek markatzen duen ereduarekiko: %45etik gora. Kultura bat zenbat eta helduagoa izan eta ekoizpen bat zenbat eta finkatuagoa izan, orduan eta altuagoak dira berrargitalpenaren balioak.


## Nobedadeak

### Nobedadeen eboluzio-lerroa



Eboluzioak egin duen bidea ageri da, abiapuntutzat 2000 urtea hartuta. Esan dugu arestian aurtengo igoera neurri handi batean nobedadei zor zaiela, eta hori erakusten du garbi grafikoak.

**Nobedadeen eboluzioaren indizea**



Aurtengo igoeraren antzeko baten bila lau urte atzera egin beharra dago. Hiru urte segidan balio positibo eskasetan ibili gara, eta iaz sekula baino beltzago. Iaztik hona 16 puntu egin du gora nobedadeak.

**Nobedadeetan jatorrizko eta itzulitako liburuk**

Nobedadeen eremutik atera gabe, txanponaren bi aldeak bezala diren jatorrizkoa eta itzulitakoa hiru modutara ikusiko ditugu, beti ere biak bata besteari itsatsita.

Jatorrizko eta itzulitakoaren indar erlazioa, 2007ko liburu-gintzan, 65 vs 35 izan da. Ez da beti horrela izan. Hurrengo bi laukietan zehatzago ikusten da erlazio hori nola izan den.

	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Jatorrizkoa	66	70	66	65
Itzulitakoa	34	30	34	35


Aurreko laukiak denboran asko zabaltzen du argazkiaren angelua. Egungo erlazio oso antzekoa ematen du 1976-2005 urtealdi luzeak. Baina indar erlazio horren barruan, azken

urteotako joera jatorrizkoaren aldekoa izan da pixka bat, 2000-2006 urtealdian ageri denez: 70 vs 30.

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
2000	73,7	26,3
2001	69,4	30,6
2002	67,3	32,7
2003	69,2	30,8
2004	73,-	27,-
2005	73,5	26,5
2006	66,-	34,-
2007	65,-	35,-
<i>Batez beste</i>	<i>69,5</i>	<i>30,5</i>

Bigarren lauki honek urtez urte egiten du bidea. Horrenbestez, urte batzuetan, laukian ikus daitekeenez, jatorrizko liburua 70etik gora ibili da. Zortzi urteotako batez bestekoa bera ere (69,5 vs 30,5) gaurkoa baino jatorrizkoaren aldekoa-goa da.

### Jatorrizko liburua eta itzulpena elkarrekin




Aipatu berri dugun jatorrizkoaren goi posizio horrek 2006ko liburugintzan izan zuen etena. Behera egin zuen garbi, eta aurten ere bai, puntutxo bat behera berriro ere. Aurten balio absolutuetan gora egin dute batak (119 unitate) eta besteak (94 unitate), baina elkarrekiko proportzioak %65 vs %35 gelditzen dira.

**Jatorrizkoa**


*Jatorrizko liburuaren eboluzio-lerroa*

Mende berriaren hasieratik goranzko bidean ari zena iaz kolpean jaitsi zen, eta aurten pitin bat irabazi du, bai, baina ez nahikoa. Urterik emankorrenak 2002-2005 bitartekoak izan ditu.





*Jatorrizko liburuaren eboluzioaren indizea*

Mende honetan bi urte beltz izan ditu jatorrizko liburuak, bi jaitsiera. 2006. urtekoa izan zen nabarmenena. Aurten gora egin du jatorrizkoak, baina ez iazkoa berreskuratzeko adina.



**Itzulitakoa***Itzulitako liburuaren eboluzio-lerroa*

Itzulitako liburuak une gozoa bizi du. Proporziorik altue-  
nean dago, bai iaz eta bai bereziki aurtun.

*Itzulitako liburuaren eboluzioaren indizea*


Mende berrian bi urteko krisialdixoa izan du (2004-2005).  
Gainerakoetan gorantz egin du, indar bereziz iaz zein aurtun.

**Berrargitalpenak**

Nola nobedadeek hala berrargitalpenek gora egin dute  
biek hala biek. Balio absolutuetan gehiago igo da nobeda-


dea: 213 titulu berri. Berrargitalpenak 104 titulu berri eka-  
rri ditu. Proporzioetan, ordea, igoera handiagoa izan du  
berrargitalpenak: 20 vs 16,4.

**Berrargitalpenen eboluzio-lerroa**



Eboluzio gorabeheratsua markatzen du grafikoak. Behin  
bakarrrik egin du bi urte jarraian gora. Aurten gorakoa egoki-  
tu da. Mailarik altuena ere aurten jaso du berrargitalpenak.

**Berrargitalpenen eboluzioaren indizea**



Bost urte positibo eta hiru beltz, horra mende berriko ba-  
lantzea. Aurtengoa baino gorakada handiagoa behin izan  
du. Aurten iazkotik 20 puntu gora dago.

**Berrargitalpenen mailaketa**

Teknologia aldatu da, editorea profesionaldu da, irakurle-ria handitu da... nahikoa arrazoi omen dira horiek berrargitalpenaren gorakada argudiatzeko eta aldi berean erlatibizatzeke.

Edozein delarik ere azalpena, berrargitalpenak gehienetan edo beti liburuaren arrakasta adierazten du, bizialdi berri baten aukera.

*Berrargitalpenen maila*

Lehen argitaraldia.....	1.511 titulu
Bigarren argitaraldia.....	173
Hirugarren argitaraldia.....	134
Laugarren argitaraldia.....	92
Bosgarren argitaraldia.....	71
Seigarren argitaraldia.....	48
Zazpigarren argitaraldia.....	25
Zortzigarren argitaraldia.....	17
Bederatzigarren argitaraldia.....	12
Hamar argitaraldi edo gehiago.....	52

Lehen edizioakoak dira libururik gehienak, ohikoa denez: 1.511 titulu, hau da, %71.

Berrargitalpenak %29 suposatzen du, titulutan 624. Horietako gehientxoenek bigarren edo hirugarren argitaraldia ezagutu dute, baina badira askoz gorago dabiltzanak. Bada 41. ediziora iritsi denik.

Gehien-gehienak (%91,5 edo 572 titulu) hamar edizio azpikoak dira. Hori da normala. Hortik gorakoa da ezohikoa. 10-20 ediziotan dabilta %7, hots, 44 titulu; eta hogeitik go-ra daudenak %1,5 dira, zortzi titulu.

Zein? Jarraian ikusiko dugu.

*Hamar argitaraldi eta gehiago*

10. argitaraldia

*Atlas sentimental. Egonaldi bat Marokoko*

*berbereen artean*

*Estitxuk pirata izan nahi du*

Zubizarreta, Patxi

Mendiguren Elizegi, Xabier

- Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 1.*  
*DBHO. A-Eredua*  
*Fisika eta Kimika 1. Batxilergoa*  
*Hondamendirako errepidea*  
*Jara*  
*Kaskarintxo*  
*Kuki*  
*Ortzadarra sutan*  
*Suzko zapatak eta haizezko sandaliak*
11. argitaraldia  
*Erinias taberna*  
*Eskola agenda*  
*Euskara eta Literatura. Batxilergoa. 1. DBHO*  
*Hitz egingo balute*  
*Ingeles bat etxean*  
*Jara*
12. argitaraldia  
*Eskola agenda*  
*Koaderno handia*  
*Kontrabandista*  
*Mutil arteko neska*  
*Ostiralak*
13. argitaraldia  
*Alaba*  
*Behin batean - Idazketa 1 (LH)*  
*Behin batean - Idazketa 2 (LH)*  
*Gizona bere bakardadean*  
*Guide de conversation. Français-basque*  
*Indiana Jones-en zamarra*  
*Nikolas Txikiren oporrak*  
*Patakon*
15. argitaraldia  
*Esaera zaharrak eta txiste berriak*
16. argitaraldia  
*Bakarka 1*  
*Obabakoak*  
*SPrako tranbia*
17. argitaraldia  
*Katu beltza*  
*Tunel luzea*
18. argitaraldia  
*Atzapar arrastoak*
19. argitaraldia  
*Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*
- Ugarte, Alberto eta beste  
 Garcia, T. eta beste  
 Milne, John  
 Osoro, Jasone  
 Landa, Mariasun eta beste  
 Arejita, Marije eta beste  
 Morillo, Fernando  
 Wölfel, Ursula
- Ormaetxea, Amaia  
 Askoren artean  
 Agirre, Ana Maria eta beste  
 Herriot, James  
 Nöstlinger, Christine  
 Osoro, Jasone
- Askoren artean  
 Kristof, Agota  
 Plowright, Piers  
 Lyons, Pam  
 Arretxe, Jon
- Garate, Gotzon  
 Olabarri, Miren eta beste  
 Olabarri, Miren eta beste  
 Atxaga, Bernardo  
 Euskaltzaleen Biltzarra  
 Balzola, Asun  
 Goscinnny  
 Mendiguren Elizegi, Xabier
- Ormazabal, Joxan
- Letamendia, Juan Antonio  
 Atxaga, Bernardo  
 Elorriaga, Unai
- Milne, John  
 Milne, John
- Landon, John
- Atxaga, Bernardo



<i>Goizuetako ezkongaiak</i>	Garate, Gotzon
<i>Izurri berria</i>	Garate, Gotzon
<i>Nikolas Txiki</i>	Goscinny
20. argitaraldia	
<i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
<i>Desagertutako emakumea</i>	Prowse, Philip
<i>Goizuetako ezkongaiak</i>	Garate, Gotzon
<i>Kittano</i>	Ormazabal, Joxan
21. argitaraldia	
<i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
<i>Eskubeltz taldearen abenturak</i>	Press, Hans Jürgen
25. argitaraldia	
<i>Babilonia</i>	Irigoién, Joan Mari
30. argitaraldia	
<i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
31. argitaraldia	
<i>110. Street-eko geltokia</i>	Zabaleta Urkiola, Iñaki
<i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
40. argitaraldia	
<i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean
41. argitaraldia	
<i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean

48 titulu argitaratuenak dira horiek. Horietako gutxien izan duenak 10 argitaraldi izan du. Gehien izan duena urteroko bera da: *Kutsidazu bidea, Ixabel*.

### *Argitaraldi batetik gora urte berean*

Aipamen berezia merezi dute titulu hauek, urte berean edizio bat baino gehiago izan dute eta. 2007an bi edizio izan dutenak 31 dira. Urte berean hiru edizio izan duen 4 daude. Lau argitaraldi izateraino iritsi da bat: Miren Agur Meabe-  
ren *Urtebete itsasargian*.

1/2 edizioak

*Ahozko hitzetatik idatzietara. Ikasi eta jardun* Eizagirre, Ana

*Elhuyar oinarrizko hiztegia.*

*Euskara-Gaztelania / Gaztelania-Euskara* Elhuyar, Elkar

*Euskararen geografia historikoa* Arejita, Adolfo eta beste

*Harreman-estilo berri bat. Egiteko dagoen*

*organizazioen aldaketarako* Saratxaga, Koldo


*Lan giroko harremanak* Del Corte, Txabi eta beste

<i>Pijama marradunaz jantzitako mutikoa</i>	Boyne, John
<i>Pirritx eta Porrotx 1. Familiak milakolore.</i>	
<i>Puzzlea</i>	Pirritx eta Porrotx
<i>Pirritx eta Porrotx 2. Familiak milakolore.</i>	
<i>Puzzlea</i>	Pirritx eta Porrotx
<i>Seximenduz, sentimenduz, nahasmenduz.</i>	
<i>Zer arraio egin behar da hemen ligatzeko?</i>	Morillo, Fernando
<i>Sua falta zaigu</i>	Agirre, Katixa
<i>Txoriak bezala / Way of the bird</i>	Kidman, Andrew eta beste
<i>Zenbakiez haratago. Euskadiko garapenerako</i>	
<i>lankidetzaz eztabaidan / La cooperación al</i>	
<i>desarrollo vasca a debate</i>	González, Miguel eta beste
<i>Zu bezain ahul</i>	Jaio, Karmele
1/2/3 edizioak	
<i>Aulki bat elurretan</i>	Alberdi, Uxue
<i>Munduari itzulua 18 ipuinetan</i>	Irasizabal, Iñaki
<i>Pirritx eta Porrotx 1. Familiak milakolore</i>	
<i>[CD-ROMa]</i>	Pirritx eta Porrotx
<i>Pirritx eta Porrotx 2. Familiak milakolore</i>	
<i>[CD-ROMa]</i>	Pirritx eta Porrotx
2/3 edizioak	
<i>Anaren bakardadea. Haurdunaldiak:</i>	
<i>norena da erantzukizuna?</i>	Sierra i Fabra, Jordi
<i>Elhuyar hiztegia. Euskara-gaztelania. Hiztegi</i>	
<i>elektronikoa / Castellano-vasco. Diccionario</i>	
<i>electrónico [Baliabide elektronikoa]</i>	Asumendi, Elisabete eta beste
<i>Garmendia eta Fannyren sekretua</i>	Uribe, Kirmen
<i>Lesterren logika</i>	Cano, Harkaitz
<i>Mailuaren odola. Erresuma eta fedea I</i>	Epalza, Aingeru
2/3/4/5 edizioak	
<i>Urtebete itsasargian</i>	Meabe, Miren Agur
3/4 edizioak	
<i>Arotzaren eskuak</i>	Ladron Arana, Alberto
<i>Ihes betea</i>	Lertxundi, Anjel
4/5 edizioak	
<i>Greta</i>	Osoro, Jasone
<i>Mendaroko txokolatea</i>	Irasizabal, Iñaki
6/7 edizioak	
<i>Amaren eskuak</i>	Jaio, Karmele
<i>Garmendia eta zaldun beltza</i>	Uribe, Kirmen
9/10 edizioak	
<i>Ortzadarra sutan</i>	Morillo, Fernando
10/11 edizioak	
<i>Jara</i>	Osoro, Jasone

11/12 edizioak <i>Eskola agenda</i>	Askoren artean
19/20 edizioak <i>Goizuetako ezkongaiak</i>	Garate, Gotzon
20/21 edizioak <i>Connemara gure bihotzetan</i>	Gabiria, Julen
30/31 edizioak <i>Ostegunak</i>	Arretxe, Jon
40/41 edizioak <i>Kutsidazu bidea, Ixabel</i>	Sagastizabal, Joxean

## Eskaintza editorial osoa

Grafiko batean erakutsi nahi izan dugu zein den egiazko eskaintzaren diakronia. Erreferentziazko hiru urte hartu ditugu, eta urte horietako bakoitzean hiru osagai jarri ditugu: titulu kopurua, tirada eta ale kopurua.




*30 urte liburugintzan* liburutik jaso dut aurreko urteetako informazioa. Tituluak neure datu-basekoak dira. Tirada, al-diz, aipatu libururako landu nuen, editoreei galdetuta eta hainbat argitaletxe arakatuta. Bosna urtez banatu nuen aztertzeke aldia, 30 urte, eta hori dela eta, tiradaren urtea dagokion urtealdikoaren batez bestekoa da, ez urteari berari dagokiona. Tirada desberdina denez aurreneko eta gainerako argitaraldietan, bereizturik egin ditut biderketak, ale-kopuruak zehaztearren.

Lerrook argi uzten dute zein desberdina den tituluen eta tiraden ibilbidea. Bata etengabe gora doana, eta bestea pixkanaka beherantz datorrena. Baldin eta zifrak egiazkoak bada, esan behar da oraindik ez zaigula gertatu beste kultura batzuei gertatzen ari zaiena. Alegia, aleetan neur daitekeen eskaintza (zinezko eskaintza, alegia) duela 10 urte baino murriztagoa izatea egun.

## Gaiak

Liburuen mamian sartuko gara orain. Edukiera aztertu ondoren, edukiaren azterketaz arituko gara hemendik aurrera.

Gai motak sailkatu nahi direnean, garrantziaren araberako bi multzo bereiz ditzakegu. Ez bakarrik aurten, aro moderno guztian. Multzo batean gehien erabili ohi direnak daude: hezkuntzakoak, haur eta gazteentzakoak, literaturakoak, eta giza edo gizarte alorrekoak. Eta bigarren multzoan datoz tratamendu urriagoa izan dutenak, alegia, zientzia eta teknika-koak, aisiakoak, erlijioak eta orotarikoa sailean kokatu ohi direnak.



Horietako bakoitzari banan-banan helduko diogu jarraian. Aurretik, panorama osoa erakuste aldera, gai-mota

guztiak aurkezten ditugu elkarrekin aurreko grafikoan, beren balio absolutu eta erlatiboekin. Ondoko laukian, gainera, 2000. urtearekiko gai bakoitzaren hazkundera zein den ere ikus daiteke.

<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>	<i>2007/2000</i>
Hezkuntza. Irakaskuntza	685	32,-	+ 34,5
Haur eta gazteentzako liburuak	547	25,5	+ 47,4
Giza/gizarte zientziak	394	18,5	+ 53,9
Helduen literatura	264	12,5	+ 3,1
Zientzia. Teknika	126	6,-	+ 113,5
Aisia liburuak	63	3,-	+ 38,6

## Hezkuntza eta irakaskuntza: 685 titulu

	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Irakaskuntza	31	33,5	27,5	32

Euskalgintzaren aro modernoan, autonomi garaian, irakaskuntzara zuzenduriko liburugintza da pisu gehien duena. Hirutik bat liburu mota hau dela esan daiteke. Iazkoa jo daiteke salbuespentzat.


Ongi hornituriko multzoa da hau, titulu kopuruaz gainera bestela ere. Tiradak liburu mota honetan dira altuenak. Multzoetan orekatuenetakoa berau da; esan nahi baita, lehen edizioaren eta berredizioaren arteko proportzio nahiko egokia duela: nobedadeak %61 dira eta berrargitalpenak %39. Nire gusturako badu puntu ahul bat, hala ere, eta da nobedadeetan itzulpenak indar handia duela: %41. Egiazkoaren azpitik dagoena, bestalde, itzulpen asko mozorroturik ematen baitira hainbat argialetxetan.

Zorionez, berrargitalpenetan proportzioa jatorrizko liburuaren aldekoagoa da: %75 vs %25. Hortaz, lehen edizioan hamarretik 4 pasatxo da itzulitakoa, baina berrargitaratuta koetan hamarretik 2,5 soilki da itzulitako liburua.

## Irakaskuntzaren eboluzio-lerroa

2003an gailurra jo ostean, beheranzko joera nagusitu da garbi. Iaz, gainera, 2000ko marratik behera ere egin zuen.


Aurten puntu batzuk gora egin du.



Zehazki iaz baino 182 titulu gehiago plazaratu da. Itxura batean zerbait ematen badu ere, ez da horren esanguratsua; izan ere, 600 titulutan dago mende berriko batez bestekoa, eta aurtengo produkzioa 685ekoa da.

Igoera hori ez dakit gauza izango ote den atzerakadaren mamua desagerrarazteko.

### Irakaskuntzaren eboluzioaren indizea



Aurreko urtearekiko erreferentzian eboluzioa ikusita, mende berriko zortzi urteotatik bost negatiboak izan dira. Eskerrak gorako hiru urte horiek, aurtengoa barne, indarra erakutsi duten.

Edozein modutan ere, agian ematen duen bezain beltza ere ez da panorama. Liburu tipo hau berezia baita bere erritmoetan, hezkuntza egitarauetik oso dependentea; eta, horregatik, baliteke ekoizpenak zikloka plazaratzean bilatu behar izatea azalpena.

### Barne sailkapena

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	4,-
Hezkuntzaren antolakuntza.....	1,1
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	18,2
Lehen Hezkuntza.....	45,5
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	29,-
Euskararen irakaskuntza.....	1,5
Goi mailako irakaskuntza.....	0,7
	-----
	%100

Hezkuntza eta irakaskuntza saila eremu eta mailaka sailkatuz gero, honela banatzen da produkzioa. Gehiena Lehen Hezkuntzako materiala da (%45,5). Bigarren dator DBH, baina urruti (%29), eta atzerago besteak. Seinalatzekoa da goi mailako irakaskuntzan material oso gutxi dagoela liburu gisa argitaratua, eta euskararen irakaskuntzak ere material berri gutxi duela.

### Haur eta gazteentzako argitalpenak: 547 titulu

	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Haur/Gazte	24	22,7	23	25,5

Irakaskuntzako liburua ekoizpenaren hirutik bat da, asko; eta gazteentzako liburua ez da askoz gutxiago: lautik bat. Kontua da bien artean argitara eman den guztiaren erdia eta gehiago osatzen dutela.


Aro modernoan zehar holatsu izan da, nahiz eta mende berrian pittin bat jaitsi egin den. Aurten susperralditxo izan du, antza denez.

Liburu mota honek bi ezaugarri nabarmen ditu: berredizio handikoa da eta itzulpen handiagokoa.

Berrargitalpenak mailarik gorena liburu tipo honetan du: %41. Egin kontu ekoizpen osoan berrargitalpena %29 dela. Beraz, goitik, oso goitik dago horren maila liburu hauetan.

Datu positibo horren ondoan jarri ohi dut nik bestea: nobedadeetan hamarretik sei itzuli egin da (%60 vs %40). Tradizionalki horrelaxe izan da, baina gehiegizkoa iruditzen zait. Konpentsazio txiki bat eskaintzen du berrargitalpenak: berriz argitaratzen direnetan %55 da euskal jatorriko titulu, eta %45 itzulitakoa. 15 puntu gora egin ohi du euskal jatorrikoak berrargitalpenetan. Hala eta guztiz ere, konputo osoan, hots, nobedadeak eta berrargitalpenak batera hartuta, itzulitako liburua gehiago da jatorrizkoa baino: %54 vs %46, nahiz eta nobedadeen proportzioan baino apalagoa.

### Haur eta gazte liburuaren eboluzio-lerroa




Mende honetako baliorik gorenean dago aurten haur eta gazteentzako liburua. Eta gainera iaztik honako igoera ere azpimarratzekoa izan da, inoizkorik bizkorrena: 132 titulu.

### Haur eta gazte liburuaren eboluzioaren indizea

Mende honetan hiru ilunaldi izan ditu liburu tipo honek. Goraldiak kontrakoak baino inportanteagoak izan dira kuantitatiboki. Gora eta behera txandatur bezala egiten du, antza.





### Giza eta gizarte zientziak: 394 titulu

	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Giza/Gizarte	19	19	21	18,5

Ekoizpenaren hurrenkera kuantitatiboan hirugarrena da alor sozialeko liburua. Aro modernoan bost liburuko bat era honetako liburua dela esan daiteke.


Horrela esanda ematen du baietz, badela zerbait. Kontuan hartu behar da, ordea, eremu zabal-zabaleko liburua dela, bertan sartzen baitira unibertsitateko ia alor guztiak. Eta zer gertatzen da? Bada, alor zehatz batera jo eta oso eskasa dela produkzioa.

Urteko ekoizpenaren %91 lehen edizioa da. Bestela esan, ia berrargitalpen gabeko edizioa da, ahula.

Edizio instituzional gehiena alor honetan kokatzen da, eta jakin badakigu erakundeek ez dutela produktua behar bezala zirkularazten.


### Giza eta gizarte liburuaren eboluzio-lerroa

Goranzko joera nagusi bada ere, beharko lukeenaren oso behetik dabil. Beste maila batean ibili beharko luke eboluzioak, eta ez indefinizio horretan.



### Giza eta gizarte liburuaren eboluzioaren indizea

Eboluzio hautsi horrek aipaturiko indefinizioa islatzen du. Badirudi liburu tipo hau ez dagoela gizartearen premiei erantzuteko pentsatua, baizik eta argitaratzaileen premia eta errentaren arabera antolatua. Argitaratzailea edozein dela ere: administrazioa, elkarte, taldea, fundazioa, edota argitaldaria.



Hiru dira urte beltzak, baina beste hiruk ere altura gutxi dute, aurtengoak barne.

### Barne sailkapena

Jantzi eskasa hainbesteko gorputza estaltzeko. Liburu gutxi dira 400 titulu alor horren zabal-handiak hornitzeko.

Hainbesteren artean banatu behar denean gutxi beharko ba-koitzarentzat. Historia eta biografia saila delarik hornituena, zer dira, bada, 80 titulu? Historia, gainerako gai-lerro ho-rien guztien antzera, erdaraz idatzi eta erdaraz kontsumi-tzen da, horra egoera.

Filosofia eta psikologia.....	3,3
Soziologia eta estatistika.....	11,1
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	12,7
Zuzenbidea. Administrazioa.....	7,7
Gizarte segurantza. Seguruak.....	5,4
Linguistika eta filologia.....	13,2
Geografia eta bidaiak.....	1,8
Historia eta biografiak.....	20,4
Etnologia.....	3,6
Edertia.....	9,8
Hirigintza eta arkitektura.....	3,1
Aurrehistoria. Arkeologia.....	4,4
Besterik.....	3,5

%100

## Helduen literatura: 264 titulu


	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Helduen literatura	16	14	15	12,5

Laugarren gai-multzo honetan, ematen du, ematen due-nez, apaltzen ari dela literaturaren indarra. Hiru erreferen-zia horietan ozta-ozta lortzen du mantentzea, lortzen due-nean. 2007an jaitsiera garbia da. Arindu egin da sailaren pi-sua: %12,5, orain arteko apalena.

## Literaturaren eboluzio-lerroa


Lerroak argi erakusten du mende hasierako bilakaera tris-tea. Azken bi urteetako susperraldia ere nabarmena da. Eta aurten, atzera, behera. Nola adierazi? Mende berriko batez bestekoa urteko 248 titulu dira. Aurten, jaitsaldia izanik ere, horren gainetik gaude. Baina jakin ez dakidana da zein den

literatur liburuaren tamaina erreal: aurtengoa, iazko altua ala mende hasierako beste hori?



### Literaturaren eboluzioaren indizea

Bai eboluzio hautsia! Txarrak izan dira ez hiru baizik eta bost urte, hazkunde negatibo edo batere gabeak. Ezin da esan, gainera, gorako joera bermatu denik, mende hasierako krisiaren ondoren. Aurtengo beheraldiak hipotesi hori ukatu egiten du.



250 tituluren jiran mantenduko dela ematen du, nahiz eta ez dakidan, berriz diot, zein den benetan dagokioken tamaina.

## Generoka

Eleberria. Ipuina.....	62,-
Olerkia.....	11,5
Antzerkia.....	3,5
Herri-literatura. Bertsoa.....	5,5
Saioa. Poligrafiak.....	6,-
Biografia. Kronika. Memoriak. Historia..	4,-
Besterik.....	7,5
	%100

Gailentzen dena, urteroko legez, fikzioso narratiba da. Ehunekotan urtetik urtera aldea badago, baina gai-lerro bakoitzak bere posizioa mantendu egiten du modu egonkorrean. Positibotzat jotzen dut hori, sektorea (idazleak bezala argitaratzaileak) kolpeka eta berrikeria hutsetatik landa ari den seinale.

## Gainerakoak

Gainerakoetan aurkezten ditugunak bi dira: zientzia eta teknika, eta aisia liburuak. Bada besterik ere, hala nola, erlijio liburuak edo orotarikoa, baina dentsitatez ezagatik kanpoan utzi ditugu.

### Zientzia eta teknika: 126 titulu


	1976-2005	2000-2006	2006	2007
Zientzia/Teknika	4,5	5,1	7,1	6

Kopuru absolututan ez da bete-betea, baina bai gorantz doana. Iaztik aurtengora jaitsaldi txikia izan badu ere, aurreko erreferentzietan ikusten da oro har haziz doan liburu mota dela.

### Zientzia eta teknikaren eboluzio-lerroa

2005 arte gorako bidea izan du etenik gabe. Eta orain zer? Bi urte darara balio berdintsuekin. Sabaia jo ote du? Ezetz

uste dugu, baina geroak erakutsiko du maila hori egonkorra den ala ez.



Liburu mota honi gerta dakiokena zera da, alegia, edukiek liburutan baino aterpe goxoagoa aurkitzen dutela aldizkarietan eta oraindik ere erosoagoa euskarri elektronikoetan.

**Barne sailkapena**

Zientzia. Kultura.....	6,5
Zientzia zehatzak.....	9,5
Natur zientziak.....	16,5
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	24,5
Medikuntza.....	16,6
Nekazaritza.....	7,1
Ingurumena.....	15,-
Besterik.....	4,3

-----  
%100

Aurten teknologiak puntu batzuk irabazi ditu, medikuntza mantendu egin da, eta natur zientziak jaitsi egin dira, handitxoena bakarrik aipatzearren.

**Aisia liburuak: 63 titulu**

Hainbat arloz elikatzen den sail honek ez du indarririk hartzen. Musika, argazkia, zinema edo mendizaletasuna, kirola, jokoak, erdaraz «egiten» dira. Idatzi bederen bai. Gai hauetan eta gai hauetaz euskaraz egin egiten da, zelaiez gainera

irratian edo egunkarietan esate baterako, baina maila idatzira nekez igarotzen da. Aldizkarietatik gora erdara da nagusi. Liburutan, zehazki, 63 titulu soilki kontabilizatu ditugu urte osoan.

Musika.....	12,7
Argazkia.....	27,-
Jolasa. Jokoa. Kirola. Atletismoa.....	22,2
Ikuskizunak (antzerkia, zinema.....)	8,-
Kiosko literatura.....	14,3
Aisia. Turismoa. Bidaia.....	15,8
	%100

## 2007ko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
<b>0. OROTARIKOAK</b>	<b>595</b>	<b>27,8</b>
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak.	48	2,2
Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Museoak	547	25,6
— Haur eta gazteentzako argitalpenak		
<b>1. FILOSOFIA</b>	<b>13</b>	<b>0,6</b>
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	13	0,6
<b>2. ERLIJJIOA. TEOLOGIA</b>	<b>35</b>	<b>1,6</b>
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moralak. Liturgia.		
Pastoral teologia. Eliza. Kristauetz besteko erlijioak	35	1,6
<b>3. GIZARTE ZIENTZIAK</b>	<b>842</b>	<b>39,5</b>
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea.		
Herri administrazioak. Gizarte laguntza. Etnologia	157	7,5
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	685	32,-
<b>5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK</b>	<b>46</b>	<b>2,2</b>
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia.		
Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	46	2,2
<b>6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA</b>	<b>70</b>	<b>3,3</b>
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia.		
Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza.		
Sukaldaritza	70	3,3
<b>7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK</b>	<b>116</b>	<b>5,5</b>
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa.		
Margogintza. Argazkigintza. Musika	102	4,8
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	14	0,7
<b>8. FILOLOGIA. LITERATURA</b>	<b>315</b>	<b>14,7</b>
— Hizkuntzalaritza. Filologia	51	2,4
— Literatura. Literatur generoak	264	12,3
<b>9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA</b>	<b>103</b>	<b>4,8</b>
— Geografia	7	0,3
— Biografiak	55	2,6
— Kondaira	41	1,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.135</b>	<b>100</b>



G A I N A G U S I A

# Martin Ugalderen idazlanak

**53** Martin Ugalderen lan idatzien katalogoa  
**JAKIN**

# Martin Ugalderen lan idatzien katalogoa

JAKIN

Aldizkariaz gainera Jakin taldeak egin dituen lanetan Martin Ugalderi buruzkoa ez da txikiena. Ez eta bakarra. Eta ezta lehena ere.

Komeni da bi hitzetan egitasmoaren berri ematea.

Memoria historikoaren transmisioarekin beti izan da kezkatua Jakin taldea. Agian kideon autobiografian aurkitu behar da kezka horren erroa. Izan ere, 56ko belaunaldia, hau da, 1956 inguruan euskal kulturari sartu zen belaunaldia, Francoren altxamenduak ekarritako etena medio, laneko materialik gabe hasi zen lanean. Hurrengo belaunaldia ere halatsu. Ez erakunde propiorik, ez Unibertsitatearik ez edukitzeak horixe dakar, kultura gorpuztu gabe, sozializatu gabe gelditzen dela.

Bai. 56ko belaunaldia Euskal Herriaren historiaren ezagutzarik gabe, euskal kulturaren eta euskararen bizitza sozialaz deus gutxi zekiela, hasi zen lanean. Hutsune horiek estali nahirik, ahalegin betean ibili gara askotan. Belaunaldi horri asko zor zaio autokontzientzia prozesuaren garapenean.

Jakinek egin dituen hainbat lan testuinguru horretan kokatu genituzke. Eta horien artean gaur aurkezten dugun lana.

Esan dugu, eta halaxe da, Martin Ugalderei buruzko lan hau ez dela ez bakarra, eta ez aurrena. Hasi 90eko hamarkadaren lehen urteetan hasi ginen lan modu honetan, Karlos Santamariarekin. Martin Ugalderekin jarraitu, eta oraintxe bertan Luis Villasante Kortabitarterekin ari gara.

Egitasmo honek berez hiru zati ditu, hiru aditzez laburtu daitezkeenak: bildu, argitaratu, aztertu. Goazen banan-banan azaltzera, labor bada ere:

- *Bildu*, alegia, liburu, artikulu eta bestela sakabanaturik dauden materialen inbentarioa egin eta ondoren bildu edo eskuratu.
- *Argitaratu*, hau da, material horiek digitalizatu eta irakurlearen eskura uzteko modua egin. Proposamena bi euskarritan oinarritzen da: digitala eta papera.
- Eta hiru: *aztertu*, esan nahi baita, autorea bere biografian eta bere lerro nagusietan aurkeztea. Ez da gure asmoa autore jakin bati buruz behin betiko lan exhaustiboa egitea, baizik eta etor daitezkeen aztertzaile eta tesi-egile finen lana erraztu eta bideratzea. Azterketa monografikoe-tarako aurrelana bailitzan.

Martin Ugaldere lanari dagokionez, esan behar dugu, amaitu berri-berria badugu ere, aspalditxo hasitakoa dela. 1993an hartu genuen erabakia Jakinen, Karlos Santamariari buruzkoa aurreratuta genuela eta. Bost urte beranduago, 1998an, argitaratu genuen Martinen autobiografia gidatua izan daitekeena, Joan Mari Torrealdaik idatzia: *Martin Ugaldede. Andoaindik Hondarribira Caracasetik barrena*, Elkar Fundazioaren laguntzaz. Ordurako Martin ondo ezagutze-ko parada izan zuen Torrealdaik, *Euskaldunon Egunkaria* proiektuan eta jardunbidean elkarrekin arituta. Martinen eskuzabaltasunari esker, gainera, ordurako beronen argitalpenak eta artxibategia arakatzeko aukera emana zion. Sei urte gehiago jarraitu genuen lan berean, harik eta 2004an

Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua finantzatzea onartu zuen arte, Joxe Joan Gonzalez Txabarri Ahaldun Nagusiari esker. Beste zarauztar bati esker, Imanol Muruari alegia, finantzatu zen Karlos Santamariaren lana.

Karlos Santamariarekin bezala, Martin Ugaldereen kasuan proposamen hirukoitza aurkeztu genuen. Karlos Santamariaren lana bildu, digitalizatu eta aztertu egin genuen bere garaian. Martin Ugaldereen kasuan kontratuak zera bakarrik jaso zuen, bildu eta digitalizatzea. Eta horixe da bukatu berri duguna. Egiteko dagoke, hortaz, argitara ematea, euskarri digitalean nahiz paperezkoan. Martinen artikulu soltee-kin 30 bat monografia argitara emateko proposamena osatu genuen. Martin Ugaldereen biblioteka polita egin liteke liburu sail horrekin, hau da, bere 50 liburuez gainera beste 30 bat argitara emanda.

Azterketa zer-nola egin daitekeen ere aurreratu genuen. Martinek ematen du zer azterturik: Martinen kazetaritza, euskaraz eta erdaraz, bi mundu; Martinen literatura, euskaraz eta erdaraz, beste bi mundu; Martin eta kultura, edo Martin eta politika, edo Martinek idatziriko historiak; eta Martinen pentsamendu-lerro nagusiak; edota Martinen gutunketa. Hainbat alor gure iragan hurbilaren lekukotza paregabea eman liezaguketenak.

Nolanahi ere, guk Martini eman genion hitza bete dugu. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin genuen kontratua ere burutu dugu. Bere lan guztiak bildu eta digitalizatu ditugu. Gertu da orain Martin Ugaldereen lan guztia irakurlearen zerbitzura jarri ahal izateko, baina hori ez dago gure esku.

Artikulu honetan, burututako lanaren emaitza jakin bat jarri nahi dugu irakurle guztien eskura: Martin Ugaldereen lan idatzien katalogoa, hain zuzen. Bertan aurki ditzakezu, zerrendatuta eta ordenatuta, Martin Ugaldek idatzitako lanak, argitaratuak zein argitaragabeak.

Ondoren, katalogo hori taxutzeko erabili ditugun irizpide nagusiei buruzko zenbait argibide eskaintzen ditugu.

## Idazlanen sailkapena eta ordena

Martin Ugalderen lan idatziak bi atal nagusitan banatu ditugu: Martin Ugalderen argitalpenak eta Martin Ugalderen artxiboa. Guztira, 1.930 idazlan dira katalogatu ditugunak.

### Martin Ugalderen argitalpenak

Martin Ugaldek idatzitako lanen artean, argitaratuak izan direnak biltzen dira atal honetan. Lau multzotan daude banatuta. Guztira, 1.588 idazlan dira:

- *Liburu osoak*: 50, guztira. Bitan Martin Ugalde liburua-ren zuzendaria da, eta beste hirutan laburtzaile-moldatzailea. Beste guztietan, bera da egile bakar.
- *Liburu zatiak*: 50. Hitzaurre, sarrera eta liburu-kapitulak.
- *Liburuxkak*: 2.
- *Prentsa idatzia*: 1.486. Egunkari zein aldizkaritan argitaratutako artikuluak, kazetari lanak.

### Martin Ugalderen artxiboa

Martin Ugalderen lan argitaragabeak biltzen dira atal honetan, hiru multzotan. Guztira, 342 idazlan eta 1.465 gutun dira:

- *Eskuizkibuak*: 278, guztira. Argitaratu gabe geratutako testu originalak dira; horien artean, batzuk landuak eta definitiboak, beste batzuk, aldiz, zirriborroak, apunteak, eskemak.
- *Irrati eta telebistak*: 64. Irrati-telebista saioetarako prestatutako testuak, gidoiak, eskemak...
- *Gutunak*: Martin Ugaldek idatzitako 1.465 gutun ere bildu eta digitalizatu ditugu. Dena den, espazio arazoengatik ez ditugu katalogo honetan sartu.

Multzo bakoitzeko lanak ordenatzeko lehen irizpidea kronologikoa da. Data bera duten lanak alfabetikoki ordenatu

dira, izenburuaren arabera. Datarik ez duten idazlanak multzo bakoitzaren hasieran kokatu dira, alfabetikoki ordenatuta ere.

## Egiletzaren inguruko ohar pare bat

Idazlan gutxi batzuetan (mahai-inguru edo prentsa komunikatu kolektiboak; bost testu, guztira), Martin Ugalde da egilea, baina ez bakarra. Kasu horietan, egiletza kolektiboa dela adieraztearren, dataren eta izenburuaren artean «[Martin Ugalde eta beste]» ipini da.

Beste zenbait idazlanetan goitizenak erabili izan ditu Martin Ugaldek, eta izenburuaren aurretik ipini ditugu. Hauek dira goitizenak: Andoni Larreta, Braulio Leiza, Pedro de Eguiluz, Braulio Zumea, Mikel Alustiza, Naparraneko Joxe Mari, Erritar, Orra, Garúa, Belkoain eta Buruntza.

## Zenbait hutsune

*Prentsa idatzia* multzoan, ezin izan da zehaztu hainbat artikuluren argitalpen-data. Hala ere, zenbait kasutan, erreferentziazko dataren bat lortu ahal izan da. Kasu horietan, dataren ondoren izartxoak (\*) ipini da: hau da, testua idatzi edo argitaratu zeneko datara hurbiltzen gaitu, baina ez da argitalpen-data zehatza.

Beste kasu sorta batean ere erabili da izartxoak (\*). Izan ere, batzuetan, idazlanaren izenburua ezin izan da erabat identifikatu eta zehaztu (egileak berak ipini ez duelako, argitalpenean agertu ez delako...). Hutsune hori saihestearren, idazlan horiei izenburu bat jarri zaie; izenburu hori berezkoa ez dela adierazten du ondoko izartxoak, hain zuzen.

## Martin Ugaldere argitalpenak

### Liburu osoak

- *Un real de sueño sobre un andamio*. Cromotip, Venezuela, 1957.
- *La semilla vieja*. Cromotip, Venezuela, 1958.
- *Ama gaxo dago*. Cromotip, Venezuela, 1964.
- *Las manos grandes de la niebla*. Cromotip, Venezuela, 1964.
- *Sorgiñaren urrea: umeentzako kontuak*. Itxaropena, Zarautz, 1966.
- *Unamuno y el vascuence*. Ekin, Buenos Aires, 1966.
- *Itsasoa ur-bazter luzea da*. Mensajero, Donostia, 1973.
- *Hablando con los vascos*. Ariel, Bartzelona, 1974.
- *Síntesis de la historia del País Vasco*. Ediciones Vascas, Donostia, 1974.
- *Tres relatos vascos*. Txertoa, Donostia, 1974.
- *Hablando con Chillida, escultor vasco*. Txertoa, Donostia, 1975.
- *Las brujas de Sorjín*. Axular, Donibane Lohizune, 1975.
- *El libro blanco del euskara*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1977. Zuzendaria: Martin Ugalde.
- *Euskal kondairaren sintesia / Síntesis de la historia del País Vasco*. Ediciones Vascas, Donostia, 1977.
- *Euskararen liburu zuria*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1978. Zuzendaria: Martin Ugalde.
- *Herri baten deihadarra / El grito de un pueblo*. Ediciones Vascas, Donostia, 1978.
- *Conflicto lingüístico en Euskadi*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1979. Laburtzaile-moldatzailea: Martin Ugalde.
- *Cuentos de inmigrantes*. Ediciones Vascas, Donostia, 1979.
- *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1979. Laburtzaile-moldatzailea: Martin Ugalde.
- *Unamuno y el vascuence*. Ediciones Vascas, Donostia, 1979.
- *El problema vasco y su profunda raíz político cultural*. Confederación Española de Cajas de Ahorros, Donostia, 1980.
- *Historia de Euskadi I*. Cupsa Editorial / Editorial Planeta, Bartzelona, 1981.
- *Historia de Euskadi II*. Cupsa Editorial / Editorial Planeta, Bartzelona, 1981.
- *Historia de Euskadi III*. Cupsa Editorial / Editorial Planeta, Bartzelona, 1981.
- *Historia de Euskadi IV*. Cupsa Editorial / Editorial Planeta, Bartzelona, 1982.
- *Historia de Euskadi V. Desde 1936 hasta 1980*. Cupsa Editorial / Editorial Planeta, Bartzelona, 1982.
- *Nueva síntesis de la historia del País Vasco*. Sendoa, Donostia, 1983.
- *Biografía de tres figuras nacionales vascas: Arana-Goiri, Agirre, Leizaola*. Sendoa, Donostia, 1984.
- *Euskaltzaindiaren historia laburra / Breve hª de la Real Academia de la Lengua Vasca. Euskaltzaindia / Breve histoire de Euskaltzaindia, Academie de la Langue Basque / A Brief History of Euskaltzaindia, Royal Academy of the Basque Language / Zur Geschichte der Euskaltzaindia, der Akademie des baskischen Sprache*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984.
- *Mantal urdina*. Erein, Donostia, 1984.
- *Hiltzaileak*. Erein, Donostia, 1985.

- *Mugarri galduen itsumundua*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia, 1985.
- *Euskara Donostian. Azterketa soziolinguistikoaren laburpena*. Donostia Hiriko Euskararen Udal Patronatua, Donostia, 1986. Laburtzaile-moldatzailea: Martin Ugalde.
- *Batasun eta zatiketen artean*. Elkar, Donostia, 1989.
- *Bihotza golkoan*. Erein, Donostia, 1990.
- *Itzulera baten historia*. Elkar, Donostia, 1990.
- *Lezo Urreiztieta*. Elkar, Donostia, 1990.
- *Cuentos I. De la nueva tierra y los inmigrantes*. Anthropos / Amerika eta Euskaldunak, Bartzelona, 1992.
- *Cuentos II. De la inmensa soledad del hombre*. Anthropos / Eusko Jaurlaritza, Bartzelona, 1992.
- *Manuel de Irujo: un hombre leal a su tiempo*. Txertoa, Donostia, 1992.
- *Mientras tanto fue creciendo la ciudad*. Eusko Jaurlaritza / J. A. Ascunce, Donostia, 1992.
- *Erroetatik mintzo*. Sendoa, Oiartzun, 1993.
- *Pedrotxo*. Euskaltzaindia / BBK, Bilbo, 1994.
- *Historia de un regreso*. Hiru, Donostia, 1995.
- *Pedrotxo*. Elkar, Donostia, 1995.
- *Erretiradako tren*. Erein, Donostia, 1997.
- *Nueva síntesis de la historia del País Vasco. Desde la Prehistoria hasta el Gobierno de Garaikoetxea*. 2 liburuki. Ttartalo, Donostia, 1997.
- *Mohamed eta parroko gorria*. Elkarlanean, Donostia, 2000.
- *La semilla vieja y otros cuentos*. Alberdania, Irun, 2003.
- *Martin Ugalde. Idazlan politikoak. Periodismo político*. S.n., s.l., 2003.

## Liburu zatiak

- «Sancho. El Quijote de los humoristas» (in: Galindo, Carlos «Sancho»: *Cartones de Sancho*).
- «La iglesia de mi pueblo» (in: Askoren artean (1959): *Andoain 1759-1959*, 12-13).
- «Prólogo» (in: Basáñez, Jesús (bil.) (1965): *El humorismo vasco a través de la historia (siglo XVI hasta nuestros días)*. Trozos escogidos de 25 distintos autores y una breve nota bibliográfica de cada uno de ellos, Gómez, Iruñea, 9-10).
- «Martín de Ugalde (1921)» (in: Basáñez, Jesús (bil.) (1965): *El humorismo vasco a través de la historia (siglo XVI hasta nuestros días)*. Trozos escogidos de 25 distintos autores y una breve nota bibliográfica de cada uno de ellos, Gómez, Iruñea, 293-310).
- «Palabras preliminares» (in: Caro Baroja, Julio (1971): *Los vascos*, Istmo, Madrid, 3. argitalpena, 11-12).
- «Hitzaurrea» (in: Lasa, Mikel (1972): *Novela berria Hego Amerikan*, Mensajero, Bilbo, 7-21).
- «Dos palabras para esta segunda edición» (in: Basaldúa, Pedro de (1977): *El libertador vasco: Sabino de Arana Goiri. Biografía histórica*, Geu, Bilbo, VII-X).
- «Introducción» (in: Askoren artean (1977): *Mesa redonda en torno a: Sabino de Arana y Goiri*, La Editorial Vizcaína, Bilbo, 9-14).



- [Martin Ugalde eta beste]: «Coloquio» (in: Askoren artean (1977): *Mesa redonda en torno a: Sabino de Arana y Goiri*, La Editorial Vizcaina, Bilbo, 37-46).
- «Egileaz hitz bi» (in: Salcedo-Bastardo, J. L. (1978): *Bolibar. Amerikako askatzailea*, Ediciones Vascas, Bilbo, 11-12).
- «El exilio en la literatura vasca: problemas y consecuencias» (in: Abellán, José Luis (zuz.) (1978): *El exilio español de 1939*. Tomo 6. Taurus, Madril, 217-283).
- «Prólogo» (in: Barriola, Iñaki (1978): *19 condenados a muerte*, Ediciones Vascas, Donostia, 7-19).
- «Tellagorri» (in: Tellagorri (1978): *Antón Sukalde*, Ediciones Vascas, Donostia, 9-15).
- «Discriminación del escritor en castellano. El escritor vasco (I)» (in: Antoñana, Pablo; Aranguren, Jorge G.; Aurteneche, Carlos; Rapha Bilbao, J. J.; García Ronda, Angel; Guerra Garrido, Raúl; Merino, José Luis; Pinilla, Ramiro; Ugalde, Martín de (1979): *Narrativa vasca actual. Antología y polémica*, Zero, Bilbo, 33-34).
- «El escritor vasco y su identidad lingüística. El escritor vasco (II)» (in: Antoñana, Pablo; Aranguren, Jorge G.; Aurteneche, Carlos; Rapha Bilbao, J. J.; García Ronda, Angel; Guerra Garrido, Raúl; Merino, José Luis; Pinilla, Ramiro; Ugalde, Martín de (1979): *Narrativa vasca actual. Antología y polémica*, Zero, Bilbo, 35-36).
- «La cultura y la lengua. El escritor vasco (III)» (in: Antoñana, Pablo; Aranguren, Jorge G.; Aurteneche, Carlos; Rapha Bilbao, J. J.; García Ronda, Angel; Guerra Garrido, Raúl; Merino, José Luis; Pinilla, Ramiro; Ugalde, Martín de (1979): *Narrativa vasca actual. Antología y polémica*, Zero, Bilbo, 37-39).
- «El hombre y su palabra. El escritor vasco (IV)» (in: Antoñana, Pablo; Aranguren, Jorge G.; Aurteneche, Carlos; Rapha Bilbao, J. J.; García Ronda, Angel; Guerra Garrido, Raúl; Merino, José Luis; Pinilla, Ramiro; Ugalde, Martín de (1979): *Narrativa vasca actual. Antología y polémica*, Zero, Bilbo, 40-41).
- [Martin Ugalde eta beste]: «Debate sobre el escritor vasco» (in: Antoñana, Pablo; Aranguren, Jorge G.; Aurteneche, Carlos; Rapha Bilbao, J. J.; García Ronda, Angel; Guerra Garrido, Raúl; Merino, José Luis; Pinilla, Ramiro; Ugalde, Martín de (1979): *Narrativa vasca actual. Antología y polémica*, Zero, Bilbo, 46-56).
- «Las manos grandes de la niebla» (in: Antoñana, Pablo; Aranguren, Jorge G.; Aurteneche, Carlos; Rapha Bilbao, J. J.; García Ronda, Angel; Guerra Garrido, Raúl; Merino, José Luis; Pinilla, Ramiro; Ugalde, Martín de (1979): *Narrativa vasca actual. Antología y polémica*, Zero, Bilbo, 181-195).
- «Prólogo. La obra de Vicente de Amézaga (1901-1969)» (in: Amézaga, Vicente de (1979): *Obras completas de Vicente de Amézaga Aresti. El hombre vasco. Vol. I*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo).
- «Sabino de Arana Goiri» (in: Arana Goiri, Sabino (1980): *Obras completas de Arana-Goiri'tar Sabin*, I. liburukia, Sendoa, Donostia, 2. argitalpena, XXI-LVIII).
- «Agirre eta euskara» (in: Agirre Lekube, José Antonio (1981): *Obras completas de José Antonio de Aguirre y Lecube. Tomo I*, Sendoa, Donostia, 1-4).
- «Jose Antonio de Aguirre y Lecube» (in: Agirre Lekube, José Antonio (1981): *Obras completas de José Antonio de Aguirre y Lecube. Tomo I*, Sendoa, Donostia, 5-62).

- «Exilio» (in: (1981): *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco. Cuerpo A: Diccionario Enciclopédico Vasco. Vol. XII: esuin-facen*, Auñamendi, Donostia, 505-512).
- «Jesús María de Leizaola» (in: Leizaola, Jesús María de (1981-1982): *Obras completas de Jesús María de Leizaola. Primer tomo*, Sendoa, Donostia, XXIII-XLV).
- «José Antonio de Aguirre y el problema generacional de Euskadi» (in: Askoren artean (1983): *Piarres Lafitte-ri omenaldia / Homenaje a Piarres Lafitte / Hommage à Pierre Lafitte*, Euskaltzaindia, Bilbo, Iker-2, 897-903).
- «Zumaia» (in: Martínez Kleiser, Luis (1983): *La villa de Villagrana de Zumaia*, Asociación de comerciantes «Elkar», Zumaia, V-XI).
- «Los vascos que escriben en castellano» (in: Askoren artean (1984): *Historia de Euskadi VI. La cultura*, Cupsa Editorial / Editorial Planeta, Bartzelona, 8-62).
- «Herriaren eta erbestearen arteko elkarrizketa (1936-1984)» (in: Intxausti, Joseba (zuz.) (1985): *Euskal Herria. Errealitate eta egitismo. Realidad y proyecto*, Jakin, Oñati, 449-463).
- «Brevisima historia de Euskadi» (in: Askoren artean (1987): *Euskalerrria*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 13-19).
- «Euskadiren historia laburra» (in: Askoren artean (1987): *Euskalerrria*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 13-19).
- «Eloy Erentxun (1904)» (in: Askoren artean (1987): *Eloy Erentxun. 1904-1987*, San Telmo Udal Museoa, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 27-62).
- «Biografía de Aitzol» (in: Ariztimuño, José «Aitzol» (1988): *Obras completas. Idazlan guztiak I. Biografía y rasgos mayores de su obra. Biografía eta bere ekintzaren alderdi nagusienak*, Erein, Donostia, 19-105).
- «Herriko Seme» (in: Haritschelhar, J.; Knörr, E.; Ugalde, M. (1988): *Koldo Mitxelena (1915-1987)*, Eusko Jaurlaritzza, Gasteiz, 1-4).
- «Herritar zintzo baten lana» (in: Urcelay, Antonio (1990): *Bergara. Irudi eta kondaira. Semblanza histórica*, Itxaropena, Zarautz, 6-7).
- «Lapurreta» (in: Askoren artean (1990): *1980-89 Bilbao Hiria ipuinak / Cuentos Villa de Bilbao 1980-89*, Bilboko Udala, Bilbo, 261-275).
- «Euskadi» (in: Naharro Calderón, José María (koord.) (1991): *El exilio de las Españas de 1939 en las Américas: «¿Adónde fue la canción?»*, Anthropos, Bartzelona, 349-365).
- «El hijo» (in: Otxoa, Julia (bil.) (1992): *Narrativa corta en Euskadi*, Vosa, Madrid, 305-320).
- «El libro que se sabía de memoria» (in: Abásolo Mendibil, José de (1992): *de 1931 a 1992. 61 años de vivencias de un periodista vasco*, Ekin, Bilbo, 17-20).
- «Los gitanos» (in: De Miguel, Pedro; González, José Luis (bil.) (1992): *Narradores vascos. Antología de la narrativa breve vasca actual*, Hierbaola, Iruñea, 163-173).
- «Martin Ugalde» (in: Aulestia Txakartegi, Gorka (bil.) (1992): *Erbesteko euskal literaturaren antología*, J. A. Ascunce, Donostia, 224-253).
- «Ama Lur eta zentsura» (in: Askoren artean (1993): *Haritzaren negua. «Ama Lur» y el País Vasco de los años 60*, Euskadiko Filmategia, Donostia).
- «Prólogo» (in: Amézaga, Elías (1993): *Los vascos que escribieron en castellano IV*, Hilargi, Algorta, 7-11).

- «La literatura vasca en euskera del exilio» (in: Ascunze, José Angel; San Miguel, María Luisa (arg.) (1994): *La cultura del exilio vasco I. Pensamiento y creación literaria*, J. A. Ascunze, Donostia, 137-154).
- «La semilla vieja» (in: Ascunze, José Angel (1994): *Antología de textos literarios del exilio vasco*, J. A. Ascunze, Donostia, 185-196).
- «Martín Ugalde» (in: Barandiarán Irizar, Luis de (1995): *Cartas a José Miguel de Barandiarán (segunda etapa, 1952-1991)*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 193-194).
- «Los turbios trabajos de la negra noche» (in: Otamendi Etxabe, José Luis (1996): *Desde aquí. (Antología del cuento vasco actual)*, Hiru, Hondarribia, 69-81).
- «Sabino Arana-Goiri eta euskara» (in: Askoren artean (1998): *Nacionalismo vasco. Un proyecto de futuro con 100 años de historia*, 2. liburukia, Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 93-105).
- «Martin Ugalde Jaunaren janzkera hitzaldia: kazetaritzaren muinak» (in: Askoren artean (2000): *Akademia ekitaldi nagusia. Martin Ugalde Jaun Txit Gorena honoris causa doktore. Pedro Miguel Etxenike eta Juan José Goirienea de Gandarias Jaun Txit Gorenak Unibertsitatearen Urrezko Dominadunak / Solemne acto académico. Excmo. Sr. D. Martín Ugalde doctor honoris causa. Excmos. Sres. D. Pedro Miguel Etxenike y D. Juan José Goirienea de Gandarias Medallas de Oro de la Universidad*, EHUko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 71-76).
- «Zuei guztiei bihotzez» (in: Askoren artean (2002): *Martin Ugalde azterkizun - Encuentros con Martín de Ugalde*, Saturraran, Donostia, 13-15).

## Liburuxkak

- «Imágenes. Rostros de fe creyente del pasado caraqueño», Comisión Organizadora del Cuatricentenario de Caracas, Caracas, 1967.
- «Lekuona eta 'Aitzol'» (in: Askoren artean (1988): *Manuel Lekuona. Omenaldia. Andoain, 1988ko otsailak 20-27*, Andoaingo Udala, ENBA eta Kultura Batzordea, Andoain. Omenaldiaren egitarauaren liburuxka).

## Prentsa idatzia

### *Aiurri*

- «Bihotza golkoan», 1997.

### *Albistaria / Correo de la UNESCO*

- «Mundu-gerra eta Euskal Herria», 1985.

### *Alderdi*

- «Aberri-Eguna».
- «El día del euzkera», 1949-12.
- «Congreso Mundial Vasco. Una piedra a nuestro tejado», 1955-08.
- «La memoria de solidaridad de trabajadores vascos», 1961-02.
- «Gure erriko guda apunteak», 1961-10.

- «Gure apaizak eta xinismena», 1962-02.
- «Diferencia entre generaciones», 1962-05.
- «Gure umeentzat kontuak», 1962-07.
- «Proyecciones vascas de la Encíclica ‘Pacem in terris’ de Juan XXIII», 1963-04.
- «Francisco Xabier de Landaburu (gb)», 1963-05.
- «Euzkadi, ja dónde va?», 1964-10/11.
- «Euzkadi, ja dónde va?», 1965-09/10.
- «El problema cultural vasco. La libertad de información», 1966-10.
- «El problema cultural vasco. Enseñanza primaria y secundaria», 1967.
- «El problema cultural vasco. La universidad vasca (1ª parte)», 1967.
- «El problema cultural vasco. La universidad vasca (2ª parte)», 1967.
- «El problema cultural vasco. El pasado y el futuro de la cultura vasca», 1967.
- «El Congreso de Nacionalidades de Lausanne», 1970-05.
- «El fenómeno de una presencia», 1971-02.
- «Erriaren bideak bat», 1971-02.
- «Askatasuna, zertako?», 1971-03.
- «El hombre y su libertad», 1971-03.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «El globo de la ley electoral», 1971-04.
- «Euzkadi eta mundo langilleak, elkar gaitean», 1971-04.
- «Justicia al trabajo», 1971-04.
- «Gure demokrazi oiñarriak», 1971-05.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «Los caminos de morir del dictador», 1971-05.
- «Fedea bear dugu», 1971-06.
- «Los cimientos de nuestra democracia», 1971-06.
- «Aur-atzeratuen eta animalien eskubideak», 1971-07.
- «El derecho a conocer lo que pasa... A los demás», 1971-07.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «El vasquismo de las Diputaciones», 1971-07.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «La soberbia del dictador», 1971-08.
- «No a las elecciones amañadas», 1971-08.
- «Presoentzat dirua», 1971-08.
- «Gudarien Eguna», 1971-09.
- «La ayuda a los presos en el Día del Gudari», 1971-09.
- «El decreto de indulto para MATEA», 1971-10.
- «Paternalismo gixaxo au noiz arte?», 1971-10.
- Braulio Leiza [Martin Ugalde]: «El Gobierno español se niega todavía a reconocer el derecho de una Universidad a Guipúzcoa», 1971-11.
- «Gernikako lotsa-gaiztoa», 1971-11.
- «La conciencia de nosotros mismos», 1971-11.
- «A ti, inmigrante en Euzkadi, País Vasco», 1971-12.
- «Euzkadi bizi diren inmigranteak», 1971-12.
- «Los inmigrantes en Euzkadi (1)», 1971-12.
- «Joseba de Rezola y el arte de morir con dignidad», 1972-01.
- «Joxeren inguruan elkartu giñen», 1972-01.
- «Irakaskintza eta eliza Espaiñan», 1972-02.
- «La enseñanza y la iglesia en España», 1972-02.
- «Los convenios colectivos y la meta obrera», 1972-02.
- Braulio Leiza [Martin Ugalde]: «España Gobernauak uko oraindik ere Gipuzkoak Unibersidade bat izateko eskubideari», 1972-03.

- «1º de Mayo en Euzkadi», 1972-04.
- «Langileen Eguna», 1972-04.
- Braulio Leiza [Martin Ugalde]: «Los vascos y la Resurrección», 1972-04.
- Pedro de Eguiluz [Martin Ugalde]: «Las elecciones italianas y la democracia», 1972-05.
- «Los hombres tienen los mismos derechos que las ballenas», 1972-06.
- «Ondakiñak eta gizona», 1972-06.
- «'Indarkeria!», 1972-07.
- «'La barbarie inútil', 1972-07.
- «El homenaje a Don Manuel de Irujo», 1972-08/09.
- «Itzailleak Lekeition», 1972-08/09.
- «36. Año de la guerra incivil. Aniversario del Gobierno de Euzkadi», 1972-10.
- «Beste gazte bat akatu digute», 1972-10.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «Los esclavos del siglo XX», 1972-10.
- «Cuando los alcaldes eran elegidos por el pueblo en Navidad, o atención a los Quisling vascos», 1972-11/12.
- «Gabonak eta matematikak», 1972-11/12.
- «Elkar-bide baten bearra», 1973-01.
- «La violencia», 1973-01.
- «El enemigo: 'lo vasco', 1973-02.
- «Ez gaitezen bidean galdu», 1973-02.
- «Aberri-Eguna», 1973-03/04.
- «Aberri-Eguna», 1973-03/04.
- «Euzkadi eta bere askatasuna», 1973-05/06.
- «La actualidad del 'regionalismo', 1973-05/06.
- «Gure erriko unibersitarioak nora joango?», 1973-07.
- «También los estudiantes vascos tienen derecho a una plaza de universitario», 1973-07.
- «Allende y 1936, la lección de dos alzamientos», 1973-08/09.
- «Chile-ko arazoak eta gu», 1973-08/09.
- «Euzkadiko Jaurlaritzaren sorkizuna», 1973-10.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «La lección de Pau Casals», 1973-11.
- «Libertad para los presos políticos y sociales», 1973-12/1974-01.
- «Preso politiko eta sozialentzat askatasuna», 1973-12/1974-01.
- «Arias Navarro, Lafon jauna eta euskera», 1974-02.
- «El discurso de Arias Navarro, los vascos y la Inquisición», 1974-02.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «Errien eskubideak ezker-eskuindarrak eta euskaldunak», 1974-02.
- «Aberri-Eguna 1974», 1974-03.
- Braulio Zumea [Martin Ugalde]: «Garrote vil para Puig Antich», 1974-03.
- «Gure eguneroko Aberri-Eguna», 1974-03.
- Andoni Larreta [Martin Ugalde]: «Solzhenitsyn y Añoberos», 1974-03.
- «En Navarra agoniza el régimen foral», 1974-04/05.
- «Langileen Eguna... Portugalen», 1974-04/05.
- «Frankismoaren aurkako euskal aukera berri bat», 1974-06/07.
- «La nueva alternativa vasca frente al franquismo», 1974-06/07.
- «Erria elkartzeko iru pausoak», 1974-08/10.
- «Los tres pasos para la coincidencia nacional», 1974-08/10.

- «‘Movimiento’aren Elkarteak», 1974-11/12.
- «Las Asociaciones del Movimiento», 1974-11/12.

### ***Alkartasuna***

- «La diáspora vasca», 1987-03.
- «Los partidos vascos y el euskara», 1988-11.
- «El derecho a la lengua viva», 1989-10-25\*.

### ***Américas***

- «A la voluntad de Dios», 1964-07.

### ***Andoain***

- «Tellechea Idigoras erakusten ari zaigun Larramendi», 1985.

### ***Arbola***

- «1936-ko euskal erbestaldia Ameriketan», 1987-03-07.

### ***Argia***

- «Aberri Eguna eta ‘independentzia’».
- «Euskararen hitzak eta bitsak», 1985.
- «Eusko Alkartasunaren sorreraz hitz bi», 1986-10-27\*.
- «Unamuno eta euskara», 1986-12-14.
- «Aita Larzabal itzali zaigu», 1987-01-24.
- «Euskara egunkarietan», 1987-09-27.
- «*Argia*, gaurko subila», 1987-11-22\*.
- «Alberto Onaindia eta Aitzol», 1988-07-31.
- «Euskal kultura auzitan», 1989.
- «Aurrera goaz», 1990-10-07.
- «Euskararen balantza», 1990-11\*.
- «Joseba Elosegí, su eramalea», 1990-11-18.
- «Golfoko gerra giroa», 1991-01\*.
- «Euskal koherentzia Jaurlaritzan», 1991-02-17.
- «Euskal egunkariaren ikuspegia», 1992.

### ***Beterriko Liburua 2000***

- «Martin Ugalde lanean biluztuz», 2001-01.

### ***Bidasoa***

- «Ondarribiako gizon urdinak», 1980.

### ***Bilbao***

- «Bilboko lehen oroitzapena», 1988-05-23.

### ***Boletín de la Academia Nacional de la Historia***

- «50 años del exilio vasco en Venezuela», 1990-01/03.

***Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos***

- «Vida, canto y muerte de Kepa de Enbeita», 1978-07-08.

***Cal***

- «Los hierros de Guanoco», 1963-04-30.
- «Santa Elena de Uairén», 1965-12-18.

***Deia***

- «Conflicto y credibilidad».
- «Kaudillokeria eta batasuna».
- «Transparencia democrática».
- «Euskera, 'konplikatua'», 1977.
- «Hitza, pre-autonomikoa eta indarkeria», 1977.
- «Lo vasco en el Hermano Ginés», 1977.
- «Egiaren monopolioa», 1977-06-08.
- «Euskaldun salduak ere baditugu», 1977-06-09.
- «Euzkadik ez dezala botu bat ere galdu», 1977-06-11.
- «Hitza hil nahi digute», 1977-06-12.
- «Botua Euzkadirentzat», 1977-06-14.
- «Hauteskundeei buruz, burutapenak», 1977-06-17.
- «Euskaldunak eta enkuesta bat», 1977-06-19.
- «Lehenengo, herri bat osatu behar dugu», 1977-06-21.
- «Estatuttoa», 1977-06-24.
- «Militarrak eta autonomia», 1977-06-29.
- «Yibuti eta askatasuna», 1977-06-30.
- «Giroa eta eraginak», 1977-07-01.
- «Gorakada noraino?», 1977-07-02.
- «Lefebvre eta beste ortodoxoak», 1977-07-03.
- «Euskaldun folklorikoa», 1977-07-05.
- «OVNI-ak eta fantasmak», 1977-07-06.
- «Rusoak eta askatasuna», 1977-07-07.
- «Ogia eta 'per capita'», 1977-07-08.
- «Demokraziarako eskutitzak», 1977-07-09.
- «Gure kondeak», 1977-07-10.
- «Ikurriña eta bandera», 1977-07-12.
- «Rikardo Arregi», 1977-07-13.
- «Ukraniarrak eta euskal eliza», 1977-07-14.
- «Telebista euskeraz», 1977-07-15.
- «Gaurko kontradikzioak», 1977-07-16.
- «Neutroi-bomba eta garbitasuna», 1977-07-17.
- «Akerraren bizkar», 1977-07-19.
- «Gure emigrazioa», 1977-07-20.
- «Fueroak eta askatasuna», 1977-07-21.
- «Mundukoak eta gu», 1977-07-22.
- «Arrantzaleari mugak jartzen», 1977-07-23.
- «Erregetzaren morrointzak», 1977-07-24.
- «Herri-nazioak eta errejioak», 1977-07-26.

- «Euskal langileria», 1977-07-27.
- «Euzkadiren lurraldea», 1977-07-28.
- «Lehengoak, oraingoak eta biharkoak», 1977-07-29.
- «Euskal Herriango ala Euskal Unibertsitatea», 1977-07-30.
- «'Ghetto'-tik ihesi», 1977-08-02.
- «Del Burgo eta Nafarroa», 1977-08-03.
- «Zer egingo dugu gure baserriarekin», 1977-08-04.
- «Gurdia eta idiak», 1977-08-05.
- «Del Burgo-ri euskal batasunaz gehiago», 1977-08-06.
- «'Provincia'-keriak eta Euzkadi», 1977-08-07.
- «Agur terdi, Monzon jauna», 1977-08-09.
- «Biziraupena, dirua eta helburua», 1977-08-10.
- «PSOE eta autonomiaren bi posibilitate», 1977-08-11.
- «Orreaga, Nafarroa eta Euzkadi», 1977-08-12.
- «Diputazio Generala eta eraginak», 1977-08-13.
- «Ikurriña ontzietan eta nekazarien sindikatoa», 1977-08-14.
- «Baserriaren etorkizuna», 1977-08-16.
- «Caro Baroja eta amorrua», 1977-08-17.
- «Cavero eta autonomiaren neurriak», 1977-08-18.
- «Madrid-en ez dute ezer ematen», 1977-08-19.
- «Herri-juezak, erdaldunak?», 1977-08-20.
- «Abertzaleok eta udal-hauteskundeak», 1977-08-21.
Baina orain azpimarra dezagun orduko Araban hiruzpalau leinu nagusi zeudela: Gebaratarrak, Mendozatarrak, Aialatarrak... horiek ziren Arabako *capoak*. Eta nor zen, bada, *il capo di capi*? Bada, Behe Erdi Aroko koordinatuetan, Gaztelako erregea. Hura zen Arabako jaunena jauna, leinuen arteko gatazketan bakea inposatzeko boterea eta ardura zeukan bakarra. Hain juxtu ere XV. mendean hori aldatzen ari da: hiriak, hiribilduak, indarra hartzen ari dira eta ez daude prest tokian tokiko *corleonetarrei* men egiteko. Erregeari laguntza eskatzen diote eta honek, hiribilduekin bat eginda, oreka berri bat ezartzen du. Prozesu luze bat da, gatazkatsua, baina XVI. menderako burutua zegoena. Orduetik aurrera nobleek

ez dute beraien artean borrokarik egingo, ez diete tokian tokiko baserritar, artisau edo burgesei besterik gabe lapurtuko. Aldiz, erregearen zerbitzura jarriko dira haren enpresa inperialetan: Amerika, Italia, Flandria, Britainia, Ingalaterra... Mila eta bat gudu eta garaipen. Baita porrotak ere.

Eta Lazarragatarrak? Lazarragatarrak Gebaratarren itzalean garatu ziren. Dirudenez Pedro Perez Lazarragako izan zen Araban ezarri zen lehen Lazarragatarra. Itzal handiko pertsona izan zen Gebaratarrentzat, nolabait esateko *Aitabitxia* pelikuletan agertzen den *consigliere* horietako bat, hots, haren administratzaile nagusia. Diru asko egin zuen, eta horrekin Larreko dorretxea erosi, guztiz berreraikiz. Dirudenez, egurrezkoa zen lehen eta Pedro Perezek harriz berregin zuen XV. mendearen erdialdean. Zazpi ume izan zituen, sei seme eta alaba bat, eta gehienak ezkondu zituen Arabako lautadako bera bezalako jaun txikiekin. Hortik aurrera Lazarraga oso deitura arrunta bihurtzen da Araban: Zalduondo, Larrintzar, Galarreta, Agurain, Gasteiz, Heredia, Erdoña, Oreitia, Dulantzi... leku horietan guztietan agertzen dira Lazarragatarrak.

Bada, Pedro Perez hau gure Joan Perez poetaren herenaitona zen, hots, haren aitona aitona. Beste modu batean esateko, gure Joan Perez bosgarren belaunaldiko Lazarraga zen Araban. Badirudi aski izan beharko litzatekeela haren arabartasunaz dudarik ez izateko.

Egia da Lazarragatarrek, Gebaratarrek bezala, beti izan zutela lotura handia Oñatirekin. Familiaren bi adar hantxe geratu ziren eta, adibidez, gure Joan Perezen aita bera ere bi aldiz ezkondu zen, lehena Oñatin eta bigarrena Erdoñan. Bigarren ezkontza honetatik sortu zen gure poeta, ziur aski Erdoñan bertan, non bizi ziren bere gurasoak. Alegia, gure Joan Perezen aita eta ama, biak ziren arabarrak eta bera ere Araban jaio, bizi eta hil zen; ezkondu ere arabar batekin ezkondu zen, Katalina Gonzalez Langarikako, eta Larreko dorretxea heredatu aurretik Arriolan bizi izan zen ezkondata, hots, Araban.

Laburbilduz: Lazarragatarrak zabaldua zeuden Gebarata-  
rren *territorioko* leku guztietan, lautadaren ekialde osoan,  
Gasteiztik Aguraineraino. Eta XVI. mendean lurralde hori  
oso-osorik euskalduna zen, Oñati bezain euskalduna.

Haren izen osoa Joan Perez Lazarragako da

Baina zein zen gure protagonistaren izena? Zeren modu  
desberdinetan ikusten dugu idatzita.

Has gaitezen errazenetik: «Juan» gaztelania modernoan  
erabiltzen den forma kanonikoa da; aldiz «Joan», euskara  
modernoan erabiltzen den forma kanonikoa. Beraz, zein  
erabili behar dugu, euskarazkoa ala gaztelaniazkoa? Eta, be-  
rehala, baten batek galdetuko du: nola erabiltzen zuen be-  
rak? Bada, berak, bere eskuz, gehienetan «Joan» erabiltzen  
zuen, nahiz eta «Juan» ere erabiltzea ez litzatekeen harritze-  
koa, horren frogarik orain arte neuk ikusi ez badut ere. Kon-  
tua hori baita finean, alegia, XVI. mendean ez zegoela kohe-  
rentzia handirik ortografian, «Joan/Juan» arazo ortografi-  
kotzat jotzen zela: berdin erabiltzen zen bata edo bestea.  
Gero, gaztelaniaz «Juan» da nagusitu den forma, eta euska-  
raz, aldiz, «Joan». Beraz, euskaraz behintzat «Joan» idatzi be-  
har da.

Baina deitura zein den zehazteak lan handiagoak ematen  
ditu. Itxura batera, kontu erraza da: arabar deitura tipiko  
horietako bat da, hasieran patronimikoa, ondoren «de» eta  
gero toponimo bat daukana. Baina ez dago oso garbi mota  
horretako deiturak benetako deiturak diren XVI. mendean.

Beharbada hasi beharko ginbateke esaten gure gaur egungo  
deitura-sistema, eta deiturak eurak, ez direla betikoak; aitzit-  
tik, garai batean sortutakoak dira, gizarteak haiek sortzeko  
premia izan zuenean, eta ez lehenago. Gure protagonista  
XVI. mendean bizi da eta, beraz, galdetu behar dugu: zein  
da XVI. mendean Araban erabiltzen zen deitura-sistema?

Erantzuna ez da oso argia: XVI. mendea trantsizio-garai  
bat da, sistema batetik beste batera aldatzeko unea. Gainera,

badirudi Araban zehatz-mehatz hitz eginda trantsizio horrek emaitza bitxi bat eman zuela, deitura arabar tipikoak, beste leku batzuetan oso gutxitan ikusten direnak. Beraz, trantsizio-garaia eta gainera trantsizio berezi bat. Ez da kontu erraza.

Lehenago esan dugun bezala, XI. mendetik geroko Erdi Aroko gizartean unitate nagusia ez zen gaur egungo familia, leinua baizik, hots familia zabal moduko bat. Gure Joan Pereren lanetan ikusten dugu behin eta berriro, bere familiaren historia egitean, oinarrizko unitatea ez dela familia gaur egun ulertzen dugun bezala, beste familia askoz ere zabala goa baizik, Lazarragatarrak, edo XVI. mendean euskaraz deitzen zuten bezala, *Elazarragarrak*. Euskarazko hitz hori bizpahiru aldiz agertzen da bere azalpenetan, argi utziz hori dela bere familiaren oinarrizko erreferentzia; gaztelaniaz, *los Lazarragas* esaera erabiltzen du<sup>5</sup>. Leinu horren barruan denak Lazarragatarrak baziren ere, bakoitzak bere izena zeukan, baina adi puntu honetan: izen hori normalki konposatua zen: batetik ponte-izena zegoen (Pedro, Joan, Iñigo, Maria...) baina bestetik bigarren izen bat, *patronimiko* izenekoa: Perez, Lopez, Ibañez, Gonzalez... Garrantzitsua da azpimarratzea Behe Erdi Aroan, XIV. eta XV. mendeetan zehatz-mehatz, patronimiko hori ez dela familiaren deitura, pertsonaren beraren bigarren izena baizik, hala nola gaur egun «Migel Angel» deitzen den batek bi izen dituen, «Migel» eta «Angel», edo nahiago baduzue, izen konposatu bat, «Migel Angel». Eta berdin dio, ohituraz, «Migel Angel» izena belaunaldiz belaunaldi etxeko seme nagusiari ezartzen bazaio: aitona, aita, semea, biloba... denak «Migel Angel», baina beti bakoitzaren izena da, ez familiaren deitura.

Sistema horrek horrela funtzionatzen zuen Behe Erdi Aroan. Baina esana dugu lehenago XVI. mendean gizartea aldatzen ari dela: leinuaren garrantzia gero eta txikiagoa da, guttiz desagertu arte. Horretan zeresan handia du aldaketa ekonomikoak: merkataritza gero eta garrantzitsuagoa da, hiriak eta hiribilduak gero eta indartsuagoak, eta esan dugun beza-

la, toki horietako burgesek ez dituzte aintzat hartzen gizarte feudal zaharra eta bere ohiturak, leinuak eta beraien arteko liskarrak. Beraz, gizarte feudaleko leinuen beherakadarekin batera, gizartean poliki-poliki unitate berri bat sortzen hasten da, familia zentzu estuagoan, denboraren poderioz gutxi gorabehera gaur egungo bezalako familia izango dena. Bada, unitate sozial berri horrek, familiak, izena behar du: hortik sortzen da familia-deitura, zentzu modernoan esanda.

Agian Corleonetarren adibidera itzultzeak lagunduko digu apur bat egoera ulertzen. Ondo gogoratzen baduzue, *Ai-tabitxia* izeneko hiru pelikulen seriean esplikatzen zaigu, besteak beste, nondik datorren *Corleone* deitura: Siziliako herri txiki baten izena da, protagonistaren jaioterria; New Yorkera iristean, izen hori hartzen du deituratzat aitarengandik letorkiokeena (*Andolini*, hots, patronimiko tipiko bat) bazter utzita. Alegia, bizimodu berria, deitura berria, herriaren izena deituratzat hartua.

Bada, euskaldunen artean fenomeno hori oso antzekoa izan da: XVI. mendetik aurrera jendeari bere deitura zein den galdegin zaionean, bere jaioterriaren edo jaiotetxearen izena eman du, eta ez aitaren izenetik eratorritako patronimikoren bat. Euskal Herri atlantikoan normalki jaiotetxearen izena da gehien erabili dena; Araban, Nafarroako leku askotan bezala, sarriago erabili izan da herria, Vito Corleonek egiten duen bezala.

Baina Araban bada beste berezitasun bat: ez dakigu oso ondo zergatik, agian herri-izenak erabiltzea apur bat nahasgarria zelako, edo dena delako arrazoirengatik, jendeak segitu du erabiltzen lehengo patronimiko zaharrak eta deitura bihurtu ditu. Gaztelan, ondo dakigunez, joera nagusia izan da patronimiko horiek familia-deitura bihurtzea, besterik gabe. Halaber, Euskal Herri atlantikoan jendeak ahaztu egin ditu patronimikoak, modaz pasatu dira, eta kitto. Baina Araban iraun egin dute, eta deitura berezi batzuk sortu dira, Gaztelako moda eta Euskal Herri atlantikokoa konbinatuz: deitura tipikoki arabarrak.

Baina gure Lazarragari buruz zer? Bada, kontua ez dago guztiz garbi. Esan dugun bezala, bera juxtu trantsizio-momentu batean bizi da. Bere idazlanak irakurriz oso garbi dago berak oraindik *Lazarraga* erabiltzen duela nagusiki bere familia definitzeko orduan, hots, bere familia *Lazarragatarrrak* dira, ez *Perez de Lazarragatarrrak*. Baina, halaber, joera nahikoa indartsu bat agertzen da Lazarragatarren barruan bere adar propio nabarmentzeko eta besteen gaintetik jartzeko, hari izen berezi bat emanez, hots, «Perez» bigarren izena gero eta modu sistematikoagoan erabiliz. Hurrengo pausua «Perez de Lazarraga» deitura gisa fosiltzea izango litzateke. Berak eman ote zuen pauso hori? Neuk uste dut ezetz; berarentzat «Perez» oraindik izen bat besterik ez zen, bere familiako adar horretan oso arrunta, baina besterik ez.

Gure Lazarraga 1605ean hil zen. Arabako historiari begiratzeko badiogu ikusiko dugu handik berrogeita hamar urtetara, hots, XVII. mendean oraindik oso arrunta dela azpimarratzea Araban patronimikoak ez direla deiturak, *izen apaingarriak* baizik; dokumentazioan horrela agertzen da, «nombres adornatibos». Baina, dokumentazio berean zehazten zaigu garai horretarako adineko gizonezkoek baino ez dituztela erabiltzen, errespetu berezi baten seinale gisa<sup>6</sup>. Garbi dago, prozesua aspaldi abiatu zen, leinuen beherakadarekin, baina ziur aski 1700era arte ez da guztiz burutu.

Beraz, eta laburbilduz: «Joan Perez de Lazarraga» erabil badaiteke ere, ez dezagun ahantz deitura «Lazarraga» dela, eta izena «Joan Perez».

Baina oraindik beste galdera bat geratzen da airean: ondo dago «de» hori euskaraz erabiltzea? Nik esango nuke ez dagoela gaizki, berak ere makina bat aldiz horrela erabili baitzuen, baina badagoela modu dotoreago eta zuzenago bat idazteko, euskarazko modu klasikoa deituko genukeena: Joan Perez Lazarragako; «-ko» horrek, jakina, ez darama artikulurik. Mota horretako izenak oso ondo dokumentatzen dira Euskal Herri osoan, eta bereziki Araban, XVI. mendean

jasotzen diren kanta zaharretan, adibidez *Ibarguen-Cachopin* izeneko kronikan; bihar bertan Julen Arriolabengoak hitz egingo digu bereziki horretaz. Garbi dago hori dela euskarazko forma klasikoa, baina nire uste apalean garbi dago forma hori funtsean Erdi Aroari dagokiola, eta leinuen beherakadarekin batera galdu zela euskaldunen artean nork bere izena euskaraz eta molde horretan emateko ohitura: aurrerantzean sistema berri bat jarriko da indarrean, eta sistema horretan euskaldunek «de» partikula erabiliko dute sistematikoki, euskarazko idazkietan ere, nire ustez, dotoretasuna emateko euren buruei, «de» erabiltzea Gaztelan edo Frantzian nobleziaren sinboloa izaten baitzen. Eta, jakina, euskaldunek zer ez zuten egingo espainolak edo frantsesak baino nobleagoak zirela erakustearren!

Tira, badira deiturarekin lotutako beste hainbat bitxikeria, baina denbora aurrera doa eta nobleziaren haritik tiraka segituko dugu.

## Lazarraga noblea zen

Euskaldunak nobleak gara. Topiko handiagorik ez dakit inoiz asmatu den euskaldunei buruz. Baina zer esan nahi du horrek?

Gizarte batean, edozein gizartetan, diferentziak daude pertsona eta taldeen artean. Batzuk hobeto bizi dira beste batzuk baino. Diferentzia horiek handiak edo txikiak izan daitezke, baina nekez aurkitzen da berdintasunean oinarritutako gizarterik. Beste modu batean esanda, gizarte batean beti bereizten dira goiko taldeak eta behekoak. Goikoak normalki minoria batek osatzen ditu, eta behekoak gehien-goia izaten dira, baina goikoak izaten dira botere politiko eta ekonomikoaren jabe eta, hortaz gain, beren pentsaera inposatzen diote gizarte osoari. Goiko taldeek definitzen dute zer dagoen ondo eta zer txarto, zerk balio duen eta zerk ez, zer den ederra eta zer itsusia. Marxek aspaldi eman zuen definizio batek balio digulakoan nago: ideologia nagusia



klase nagusiaren ideologia da. Honek berdin balio du Euskal Herrian edo Alemanian, XXI. mendean eta XVI.ean.

Ez da hau lekua arakutzen hasteko noiz eta nola sortzen diren gizarte barruko diferentzia horiek, edo zergatik. Gaur azpimarratu nahi nukeena hauxe da: gure Lazarraga noblea zen, alegia, gizartearen goiko estratuan kokatua zegoen, minoria gidarian.

Jakina denez, gizartea bi klasetan banatzea, goikoak eta behekoak, gauzak asko sinplifikatzea da; bai talde batean zein bestean azpitaldeak daude. Batzuetan gainera ez dago izugarritzko diferentziarik azpitalde batzuen eta besteen artean, baina garbi dago, adibidez, Joan Perez Lazarragakok ez zeukala bizitzeko lan egin beharrik, errentetatik bizi zitekeela. Eta hori, beste barik, diferentzia handia da.

Beraz, errentetatik bizi zen? Egia esan, zehatz-mehatz ez dakigu nondik edo zertatik bizi zen Lazarraga. Baina aski da bere idazlanak irakurtzea konturatzeko bere bizitzaren aldi luzeetan ez zuela lanik egin. Garbi dago XVI. mendean liburuak irakurtzera, maitasunezko poemak eta narrazioak idaztera, edota maitasuna ez zenean bere familiari buruzko kronika historikoak idaztera dedikatzen zen jaun bat ez zela eskulangilea. Lazarragak, itxura batera behintzat, egun osoa zeukan libre irakurtzeko, pentsatzeko eta idazteko. Noblea zen eta errentetatik bizi zen. Ez dirudi euskal literaturaren barruan egoera hori askotan errepikatu denik. Gaur egun ere, ez dakit existitzen den euskal idazlerik lan egin gabe bizi daitekeenik, nahi duena irakurtzen eta idazten.

Dena den, euskal nobleziaren gaiak analisi xeheago bat mereziko luke. Lehenago iradoki dugun bezala, nobleen artean ere talde desberdinak ikus daitezke: adibidez, Gebararrak bezalako noblezia zaharra, handikiak, benetako aberatsak ziren, eta beren ardura bakarra etxeko ondasunak administratzea izaten zen, erregearen gortean dotore-dotore agertzea eta erregearen zerbitzuan goi mailako postuak eta pribilegioak eskuratzea. Baina Lazarragatarrak bezalako noblezia txikiaren kasuan egoera konplikatuagoa zen; jakina,

posible zen bakoitza bere etxean bizitzea bere errentetatik, baina kasu askotan horiek oso txikiak izaten ziren eta, noblea bazara, dirua behar duzu dagokizun mailan bizitzeko.

Ez dakigu gure Lazarragak anbizio handirik edo txikirik zuen. Anbizio berezirik ez bazuen, Larrean biziko zen, lanik egin gabe baina distira gutxirekin; edo, bere belaunaldiko beste hainbat eta hainbat euskal noble txiki bezala, gora egiten saiatuko zen, garapen betean zegoen gizartearen saltsatan murgilduz. Bera bezalako noble batek funtsean bi aukera zituen: lehena, erregearen zerbitzura sartzea, edo burokrata bezala edo militar bezala; bere senitartekoen artean antzeko kasu ugari aurkituko ditugu. Ez dakigu ezer bere balizko bokazio militarri buruz, baina burokrata bezala lan egiteko unibertsitate-titulu bat beharrezkoa zen. Ba ote zuen? Horretaz ere ez dakigu ezer. Baina erregearen zerbitzua alde batera utzita, negoziotan sartzea oso ondo ikusia zegoen euskal noble txikien artean, Gaztelan ez bezala. Merkatari gisa proba zezakeen, edo bere diruarekin inbertsioak egiten saiatu; sasoi horretako Gasteizen merkatari talde indartsua zegoen, nazioarteko negoziotan sartuta. Parte hartu ote zuen horrelakoetan?

Berriz diogu, horretaz guztiaz ez dakigu ezer. Baina, edonola ere, Lazarraga goiko taldeetako kidea zen: ate guztiak zabalik zituen, baita errentetatik bizitze hutsa. Egon ote da beste euskal literatorik egoera berean inoiz?

## Eta ez zen apaiza edo fraidea

Euskal idazleen artean arruntena izan da apaiz edo fraide izatea. Honek esplikazio erraz bat du: idazteko lehenengo eta behin ikasketak behar dira, eta gainera idazteko denbora librea behar duzu. Baldintza biak ez daude jende xehearen eskura, beraz, noblea ez bazara, edo burges aberats baten semea, aukera bakarra dago: apaiz edo fraide izatea.

Jakina, hainbat noble ere apaiz edo fraide sartzen zen, baina normalki Eliza barruan karrera egiteko asmoz, alegia,

gutxien-gutxienik kalonje, parroko, artzipreste edo horrelako karguren bat hartzeko, eta noblezia handiaren kasuan apezpiku edo monasterio bateko aita abade. Euskal idazleen artean, jakina denez, ia ez da egon mota horretako karreradunik: ez apezpikurik ez aita abaderik, asko jota parrokoak edo kalonjeak. Gure Lazarragaren garaikide eta auzokide den Joan Perez Betolatzakoren kasua esanguratsua da: Calahorrako apezpiku den Pedro Mansok katixima bat egitea agindu zuen eta Betolatzak hura euskaratuko du, baita ere apezpikuaren aginduz<sup>7</sup>. Bada, finean, Betolatzak beste baten aginduak betetzen ari den apaiz itzultzaile bat da; egia da doktorea zela baina ez dirudi jatorriz familia noble batekoa zenik, nahiz eta ziur aski ere ez zen izango guztiz pobreak zirenen artean sortua; Eliza izan zen gizarte eskaileran gora egiteko aurkitu zuen bidea, eta hortxe ere puntu bateraino egin zuen gora; ez oso gora, kalonje izatera ere ez baitzen iritsi: hori zen nobleak edo aberatsak ez ziren gehien-gehien patua.

Beste hitz batzuekin esanda, Lazarraga benetako salbuespena da honetan ere.

## Lazarraga ez zen abertzalea

Poliki-poliki denbora aurrera doa eta puntu bereziki gatazkatsu bat ukitu behar dugu: Lazarraga ez zen abertzalea.

Gaur egun oso ohituta gaude euskara abertzaletasunarekin identifikatzera. Ez da batere arraroa. Urrunago joan gabe, gogora dezagun frankismoaren egoera: euskara bera guztiz erasotua eta erreprimetua izan zen hain juxtu ere erregimen frankistak abertzaletasunarekin identifikatzen zuelako, abertzaletasuna separatismoarekin, eta separatismoa hekatonbe kosmiko suerte batekin, edozein-edozein neurri justifikatuko zuena, baita latzenak ere. Jakina, posible da egoera horretara iristeko gertatu zen historiaz hitz egitea, baina ez da hau horretarako lekua. Beraz, esan dezagun, beste ñabardurarik gabe, erregimen frankistak erabat

sinesten zuela euskara eta abertzaletasunaren artean identifikazio absolutua zegoela.

Historiaren jarraipena ezaguna da: Euskal Herrian abertzaleak izan ziren frankismoaren kontrako borrokaren gidaritza eta protagonismo soziala hartu zutenak eta, beraz, gizartearen gehiengo zabal-zabal batek, frankistengandik ezkertiarrenganaino, asumitu egin zuen identifikazio hori. Ondorioz, euskal idazle guztiak ia-ia definizioz abertzaleztat hartuak izan dira, edo beste modu batean esanda, ia-ia pentsaezina izan da norbait euskal idazle izatea abertzale izan gabe. Mota honetako irudi topikoeak, noski, modu erretrospektiboan ere jokatzen dute, alegia, espresuki adierazi gabe ere badirudi euskal idazle guztiak, lehenetik azkeneraino, abertzaleak izan direla, XVI. mendean bizi izan baziren ere. Hori izan da topikoa.

Ez da orain lekua topiko zehatz hori sakonago aztertzeko, baina haxe bakarrik azpimarratu nahi nuke: Joan Perez Lazarragako ez zen euskal abertzalea. Areago, gure Joan Perez Espainiako erregearen miresle eta jarraitzaile porrokatua zen, eta ez da dudarik bere burua espainoltzat zeukala, garai hartako guztiak bezala, jakina.

Kontu honetaz bi ohar egin daitezke eta, labur-laburki, egingo ditugu. Bata, orokorra, bestea Lazarragari berari dagokiona.

Orokorrean esan dezagun XVI. mendean ez zegoela ez euskal abertzalerik ez espainol abertzalerik gaur egun erabiltzen ditugun terminoetan ulertuta. Kontrakorik esatea historialarien artean bekatu handia da eta izen zehatz bat du: anakronismoa. Beraz, munduko gauzarik normalena beharko luke izan esatea Lazarraga ez zela euskal abertzalea eta, kasu, Cervantes ere ez zela espainol abertzalea. Eta, ondorioz, bien instrumentalizazio politikoaren kontra egon beharko genuke. Ez dakit denok gauden horretarako prest.

Baina hori bakarrik esanda motz geratzen gara. Gure Lazarragak, Cervantesek bezala, baduelako bere ideologia, mundua eta gizartea ikusteko bere moldea. Tamalez, Laza-

rragaren kasuan ez da erraza horren gaineko ikerketa sistematiko eta zehatz bat egitea, besteak beste haren testuen edizio kritikorik ez dugulako. Ez haren euskarazko eskuizkribuaren ez gaztelaniazko *kronika historikoaren* ediziorik ditugu, eta kasu bietan dauzkagun eskuizkribuak esku batek baino gehiagok idatziak dira. Zer da zehatz-mehatz Lazarragak berak idatzia?

Baina gauza zehatzik esateko zailtasunik badugu ere, haren idazkien tonu orokorrak ondorio garbi batera eramaten gaitu: Lazarragaren ideologia, funtsean, XVI eta XVII. mendeetako euskal noblezia txikiaren ideologia berbera da, hots, Espainiako erregearekiko miresmen absolutua eta haren politika inperialista eta ideologia ultrakatolikoa itsuki sostengatzea. Ideologia hori argi eta garbi azaltzen da, adibidez, haren ahaide eta ziur aski ezagun hurbila zen Esteban Garibai historialariaren idazkietan; ez dago arrazoirik uste izateko Lazarragak besterik pentsatzen zuenik.

Dena den, kontua ikertzeko dago. Adibidez, garbi dago Lazarragak une konkretu batean gutxienez harremanak izan zituela Nafarroa Behereko euskaldun protestanteekin. Berbera da horren berri ematen diguna haren kronikan, Teofilo de la Torre-rekin izandako harremanez mintzo denean. Esan nahi ote du honek ikuspegi zabalago bat zeukala protestantismoaz?

Azken datu bat bereziki aztoragarria da. Entzun dugu oraintxe bertan Kike Fernandez de Pinedo eta Xabi Otsoa de Aldaren eskutik egin den hitzaldian Araban izandako sorgin-ehizaren berri. Entzun dugunari segituz, azpimarratu behar da prozesu horietako batek, gainera, zuzen-zuzenean ukitu zituela Larrea eta Lazarragatar batzuk<sup>8</sup>. Bada, Axularren kasuarekin Patxi Salaberrik egin duen bezala<sup>9</sup>, galde genezake zein izan zen gure Joan Perez poetaren jarrerera. Ez dakigu, baina badugu zantzu garbi bat: bere iloba bat, Frantziska Alegria deitua, Joan Aiala izeneko batekin zegoen ezkondua, zeina baitzen Aiala doktorearen iloba, hots, Gorengo Inkisizioko Inkisidorea. Argi esanda: Laza-

rragaren iloba bat Inkisidore kargudun handi baten ilobarekin zegoen ezkondua; Joan Perez bera da datua ematen diguna, eta badirudi harro dagoela horretaz. Harro ote zegoen benetan? Zein izan ote zen bere jarrera hain gertukoak ziren auzi horietan?

## Gustuagatik idazten zuen

Baina haren jarrera politiko edo ideologikoei buruz esan genezakeen gehiena espekulazioa bada ere, oso garbi dago zein zen bere jarrera euskal idazle gisa euskal literaturari buruz: gustu hutsagatik idazten zuen. Artea artearentzat. Hau ere oso arraroa izan da euskal literaturan: idazleek normalki helburu zehatz batekin idatzi izan dute: gehien-gehienetan helburu erlijioso batekin edo, XIX. mendetik aurrera, helburu abertzale batekin, hots, euskararen edo Euskal Herriaren alde. Frankotan, gauza biak batera. Helburu literario hutsez edo, baldarkiago esanda, gustuagatik idazten duten idazleak aurkitzeko ia-ia gure belaunaldiraino etorri behar da, hots, XX. mendearen bigarren aldera.

Noski, ez da kasu bakarra. Besteak beste hortxe ditugu Beñat Etxepare eta Arnaut Oihenart, biak arrazoi askorengatik gure Lazarragarekin paralelismo handiak dituztenak. Badi-ra beste batzuk ere, baina ez dakit oso gutxi izan diren, orain arte garrantzi txikia eman zaien edo, beste barik, ez dugun beraiengan erreparatu. Dena den, Lazarragarena kasu berezia da, batez ere bere Artzain nobelari dagokionez: bete-betean Ernazimentuko lan bat da, sasoi horretan guztiz modan zegoen literatur genero batekoa.

Eta honek beste puntu batera garamatza, orain arte ukitu ez duguna: norentzat idazten zuen Lazarragak? Badirudi ez zeukala liburuak publikatzeko irrikarik, ez baitzuen inoiz publikatu. Gelditu zaizkigun bi eskuizkribuek aditzera ematen dute lagunen arteko zirkulu txikietan zabalduak eta komentatuak izateko direla. Ez da harrigarria. Ezaguna denez, Cervantesek edo Shakespearek idazletza zeregin profesio-

naltzat hartzen zuten, hots, lanbide gisa; dirua irabazteko idazten zuten. Egia da bizi zelarik Shakespearek ez zuela antzerki-libururik argitaratu, baina bere idazlanen helburua antzezpen publikoak egitea zen, sarrera kobratuz, eta hortik bizi zen bera; Cervantesen kasua antzekoa da: saiatu zen antzerki-munduan ere, baina arrakastarik gabe, eta orduan liburuak argitaratzeari ekin zion helburu garbi batekin: bizi-modua ateratzea. Baina ez Cervantes ez Shakespeare ez ziren nobleak; aldiz, gure Lazarragak ez zeukan bere literatura salmentan jarri beharrik bizimodua aurrera ateratzeko. Alde horretatik, gure autoreak antz handiago du Garcilaso de la Vega edo Sir Philip Sidney bezalako nobleekin, Cervantesekin eta Shakespearearekin baino.

Gainera, badirudi logikoa dela pentsatzea Lazarragak nobelatxo eta poema ernazentistak idazten bazituen izango zela bere inguruko lagunek, bera bezala nobleak eta ikasiak zirenak, euskaraz bazekitelako eta beraien artean euskaraz hitz egiten zutelako. Eta hau bai da berrikuntza izugarria: ez da noble euskaltzale bakan bat, ez; badirudi XVI. mendeko noble arabarren zirkuluetan euskaraz hitz egiten zutela, zirkulu batzuetan behintzat. Zenbat? Eta, batez ere, noiz arte? Zeren Lazarragaren euskarazko lanak gaztetan idatzitakoak dira. Aldiz, badirudi historiako lanak handik hogeit hamar urtera idatziak direla, helduaroan. Esan nahi ote du horrek denbora horretan aldaketa handi bat gertatu dela Arabako nobleen hizkuntza-ohituretan? Horrelakorik pentsatzea ez litzateke zorakeria, baina froga gehiago behar-ko genituzke, oraingoz ez daudenak. Baina berehala helduko diogu berriz ere gai horri.

## Euskaraz eta gaztelaniaz

Heldu gara azken puntura, eta hemen ere Lazarraga guztiz desberdin agertzen zaigu. Izan ere, ohituta gaude pentsatzera batzuek euskaraz idazten dutela, beste batzuek erdaraz, eta bata ala bestea izan behar duela. Bada Lazarragak bieta-

ra idatzi zuen. Ez dago garbi bata ala bestea hautatzeko arrazoiak zeintzuk ziren. Garai desberdinak bere bizitzan, lehen esan dugun bezala? Baliteke. Idazki mota? Literaturaz batez ere euskaraz idazten du, historiaz gaztelaniaz. Baina gaztelaniaz ere idazten ditu poematxo batzuk bere historia lanean, eta gaztelaniazko poematxo batzuk ere badaude literaturako eskuizkribuan. Edizioak izan arte nekez jakingo dugu kontu zehatzagorik.

Dena den, datu garrantzitsua iruditzen zait, oraingoz esplikazio argirik ez badu ere. Lazarragak bietara idatzi zuen, euskaraz eta gaztelaniaz. Gerora ere beste askok egin izan dute hori, adibidez, Larramendik, horretan nolabaiteko eskola sortu zuena. Baina hark irizpide argi bat erabiltzen zuen: lan garrantzitsuak gaztelaniaz egiten zituen eta euskaraz, aldiz, jende xeheari zuzendutako sermoiak. Ez da hori Lazarragaren kasua: lanik onenak, garrantzitsuenak, euskaraz daude. Edo, bestela esanda, bai historia lanak bai literatura lanak ez dira herritar xeheentzat idatziak, bera bezalako jendearentzat baizik. Hori ere azpimarratzekoa da.

Eta azken puntu honek hondar-hondarreko galdera batera garamatza: zein izan da arabar nobleziak jokatu duen papeira euskararen historian? Euskaltzalea izan da, Lazarragak iradokitzen digun bezala? Edo euskararekiko ez du inolako ardurarik izan, orain arte pentsatu dugunari segituz? Galdera zaila, erantzun errazik ez duena ikerketa berrien gabezia. Baina geuk zantzu bat emango dugu, Borja de Aguinagaldek Auñamendi Entziklopedian Gebaratarrei buruz idatzi duenari segituz<sup>10</sup>. Eta hauxe da: badirudi gure Lazarraga bizi izan zen bitartean aldaketa handi bat gertatu zela Gebaratarren historian: ordura arte nagusiki Gebaran bizi baziren ere, 1593tik aurrera, Oñatiko laugarren kondea hiltzean, Madrilera aldatu zirela, eta aurrerantzean han bizi izan zirela.

Interesgarria da gertakari horretaz apur bat hausnartzea. Honela dio sasoi horretako kronista den Salazar y Castrok: «las glorias de la Casa de Oñate, adormecidas por el largo retiro de sus dos últimos poseedores, volvieron a su justo



esplendor y grandeza» (Aginagaldek jasotako aipua in Auñamendi). Hots, bosgarren kondea Madrilen finkatu zen eta izugarrizko kargu handiak izan zituen erregearen Gortean, baina ez dirudi Arabarekin lotura handia zeukanik. Laugarren kondeak, aldiz, bere bizitzaren parterik handiena Gebaran eman zuen, erregearen Gortetik urrun.

Alegia, badirudi XVI. mendean zehar, bereziki 1559 eta 1593 bitartean, Oñatiko 3. eta 4. kondeen garaian hain zuzen ere, handiki horiek gortetxo moduko bat mantentzen zutela Gebaran, beren jauregian. Gure Lazarragak badu poema bat gortetxo hori deskribatuz, adibidez, bertan egiten ziren *justak*, hots, torneoak, eta haien inguruan antolatzen zen jaialdi handia. Kurioso da, baina 4. kondea 1564an ezkondu zen, andre noble eibartar batekin: Lazarragak deskribatzen digun torneo hori haren ezkontza dela-eta izango ote zen antolatua? Zeren gogora dezagun une horretan gure poetak hamazazpi urte dituela, eta bihotza amodio sukarrerez beterik, Gebarako gazteluan bizi diren «dontzeila flor-delisa»-rekiko. Suposizio hutsa da, baina ez oinarri gabea.

Dena den, badirudi 1593tik aurrera giroa guztiz aldatzen dela; 4. kondea hilik, titulua haren alaba batek heredatzen du, noble gaztelau batekin ezkondu dagoena eta Madrilen biziko dena. Aginagaldek ondo deskribatu du prozesua:

Coincide con el progresivo desligamiento de los Guevara de sus tierras patrimoniales por su acumulación de Títulos y Grandezas, que los hacen asentarse en la Corte madrileña, donde construirán su célebre palacio en la calle Mayor que, derruido en 1912, conserva su portada barroca.

Gebarako jauregia bertan behera utzi eta haren ordezkari Madril beste bat egingo dute, Kale Nagusian. Ondorioen bat atara beharko genuke euskararen historiari dagokionez? Lazarragaren bi eskuizkribuen artean ikusten den hizkuntza-aldaketak ba ote du zerikusirik Gebarako gortetxoaren desagerekin eta horrek ekar dezakeen giro aldaketarekin? Ikerketa berrien beharrean gaude.¶

1. Eskerrak eman nahi dizkiot Jaione Agirrerri artikulua honi egindako zuzenketa eta iradokizun baliosengatik. Egon daitezkeen akatsak, noski, nire gain doaz.

Artikulu hau «Lazarraga, arabar poeta» jardunaldietan aurkeztua izateko prestatu zen (Gasteiz, Artium, 2008-12-10). Hitzaldiaren helburuak artikulua mamia esplikatzen duenez gero, jatorrizko ahozkotasanari eutsi zaio, hainbat ohar gaineratu zaizkion arren.

2. Euskarazko eskuizkribuaren erreproduzio faksimilea internet bidez kontsulta daiteke Gipuzkoako Aldundiaren web gunean; Iñigo Landak egindako transkripzioa Armiarma web gunean kontsulta daiteke. Hortaz gain, laster izango da sarean Joseba Lakarraren gidaritzapean egindako edizio berri bat *Monumenta Linguae Vasconum* web gunean.
3. Bi bertsioko kontsulta daitezke:

*Relación histórica de las Casas y Apellidos de Lazarraga, privilegio de la Fundación de la Torre de Larrea dada en el año de 839...* Jatorrizko dokumentua Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan dago (sig. 5041-1); kopia elektronikoa bat Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsulta daiteke.

*Relación que dejó Juan Pérez de Lazárraga, sobre genealogía de su familia: [Biblioteca Nacional, Ms. núm. 11.263. (1601, 5 de marzo)]* in: Comas Ros, María, *Juan López de Lazarraga, Secretario de los Reyes Católicos y el Monasterio de Bidaurreta, en la Villa de Oñate*. Bartzelona: Descartes, 1936, 85-150 or.

4. Jatorrian *The Godfather* du izenburua, eta serie osoa hiru pelikulak osatzen dute, hurrenez hurren 1972, 1974 eta 1990ean eginak. Hiruetan zuzendaria Francis Ford Coppola izan zen eta aktore nagusia Al Pacino. Hasierako istorioa Mario Puzo-ren nobela batean oinarritzen da. Espainian *El Padrino* izenburuarekin zabaldu zen, eta Frantzian *Le Parrain*.
5. Leinua zer den eta nola den osatua garbi ikus daiteke ondoko pasarteetan, zeinean Lazarragak kontatzen duen alderdikerien denboran izandako borroka bat; aurrez egindako irain baten ordainetan, leinu etsaikoek asmatu dute Lazarragatarren galsoroak zapaltzera eta desegitera joatea: «Acordaron de ir a mano armada, con todos sus ganados, que asaz habían muchos, al término y heredades sembrados y aun casi maduros de la casa y vecindad de [La]çarraga. Y pacerlos y destruirlos, como lo hicieron. Y siendo vistos por el señor de la casa y pariente mayor que a la sazón era, salió de ella con sus armas y poniéndose a la [hitz irakurtzina] dio una voz alta apellidando a los suyos que enrededor vivían diciendo ELAÇAARAGAA-ROC [Elazarragarrok] que es tanto como decir, ea los míos, y sin aguardar a más se fue con la gente de su casa...» (Gasteizko Elizbarrutiko eskuizkribua, 8. or.; grafia neuk gaurkotua da irakurketa errazteko). Garbi ikusten da hor leinuaren izena, *Elezarragarra*, ahaide nagusiaren figura eta, halaber, leinua ez dela senide hutsez osatua, baizik eta inguruan bizi ziren guztien artean, denak leinuari nolabait atxikiak.
6. Arabako deituren berezitasun hori XVII. mendea franko aurreratuta zegoenean ere bizirik zegoela frogatzeko, aipu luze hau aldatzen dugu ho-

na, Henrike Knörrek emandako arrastoari segituz aurkitua eta orain oso-rik eskainia:

«Respecto de los apellidos, es muy importante tener en cuenta que para las gentes de los siglos XVI y XVII los patronímicos no lo eran. Así, no son verdaderamente apellidos: Beltrán, Díaz, Domínguez, Fernández, Galíndez, García, González, Ibáñez, Iñíguez, López, Martínez, Miguélez, Ochoa, Ortiz, Pérez, Ramírez, Rodríguez, Ruiz, Sanz, etc. Para disipar toda duda basta citar, entre muchos, algunos ejemplos. Así en el expediente 1414 de la Orden de Alcántara del Arch. Hist. Nac. dice el a. 1660 un testigo de Barberana, junto a Osma de Valdegovía, que «en cuanto al Ortiz (de Sancho Ortiz de Guinea que testó en 1567), que este apellido no es apellido sino nombre patronímico, como lo es Saenz de Guinea (yerno del Sancho Ortiz), porque en esta tierra (Barberana) se usa, por causa de respeto a los ancianos, ponerles estos nombres en siendo viejos». Dice otro testigo: «es uso desta tierra el que le llamen a uno en siendo viejo, antes del apellido, un nombre así como Pérez, Saenz, Ortiz, etc.». Y lo mismo declaran los demas testigos. Con esa libertad, el hijo de un Ortiz de Guinea puede llamarse sin dificultad Saenz de Guinea.

Si el ejemplo de Barberana nos parece un poco alejado del centro de nuestra Alava, tenemos también la declaración de los testigos de Berricano, Letona, Záitegui, Buruaga y Larrinoa, que dicen en 1677: «en cuanto a los patronímicos González (de Cortázar y de Apodaca) y Fernández (de Gamboa y de Landaluce) es muy común el usarlos en esta provincia casi todas las familias, sin que por eso se diferencien en cosa alguna ni que los necesiten para distinguirse los unos de los otros, que a veces sucede usarle los padres y no le usan los hijos y otras tomarlos por razon de las madres y llamárselo a las mujeres por razon de tenerlos sus maridos...». (Exp. 383 de la Orden de Alcántara). En 1679 dice un testigo, a propósito del López de Gobeo, «que el apellido que derechamente le toca (al pretendiente) y que es el de su varonía es el de Goveo (Juan Miguel de Goveo, Santiaguista), y que lo de López (de Pedro López de Goveo su abuelo paterno, nat. de Vitoria) es patronímico y adornatibo, y, en caso que se hallen otros semejantes antes del dicho apellido de Goveo, seran adornatibos asimismo... y que desto asimismo hay en esta ciudad y provincia muchos ejemplares». (Esto de «adornatibo» gustan mucho de repetirlo en los expedientes los testigos alaveses). Pedro López de Goveo fue bzdo. en S. Miguel de Vitoria el 28 de nov. 1597.

En las listas [artikuluaren mamia osatzen duten izen-zerrendei egindako erreferentzia] constará a veces solo el patronímico, o solo el apellido, o ambos, según el gusto del declarante o la prisa del escribano. Es obligado suponerlo así. Por esta razón, toda escrupulosidad será poca al hacer investigaciones genealógicas. A lo dicho hay que añadir que, a causa del vínculo o mayorazgo o casa que representaban, y hasta por motivos de un especial afecto a tal o cual abuelo o abuela, se daba el caso de que varios hermanos llevaran apellidos diversos.»

- Fernández de Palomares, Vidal: «Alava: Sus hombres y sus armas hace 400 años. Preparativos para la guerra de Granada», in: *Boletín de la Institución Sancho el Sabio*, 15 (1971) 79-80. Baita ere Henrike Knörrek aipatua in «Betolatzaren zenbait berri», ASJU, 20-2 (1986) 504.
7. *Doctrina christiana: en romance y basquence / hecha por mandado de D. Pedro Manso, Obispo de Calahorra, y la Calçada, y del Consejo del Rey nuestro señor, para las tierras Bascongadas de su Obispado; reducida por el Doctor Betolaça, a lenguaje más comun, y más usado y que con más facilidad se entiende en todas ellas, para bien, y utilidad de sus obejas de aquellas partes*. Impresa en Bilbao: por Pedro Cole de Ybarra, 1596.
  8. Aipatu hitzaldia *Fontes Linguae Vasconum* aldizkarian argitaratzekoa da.
  9. Salaberri Muñoa, Patxi: «Axular Jekyll, Axular Hyde», in: *Nerekin yaio nun: Txillardegiri omenaldia*, IKER bilduma, 17, Bilbo, 2005, 413-430 or.
  10. Aginagalde, F. Borja: «Casa de Guevara», in: *Bernardo Estornes Lasa – Auñamendi Entziklopedia*, [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) [kontsulta 2008-11-26].